**LUR TXAKUR, lur txakurre:** lur txakurra; "lur txakurre da, oidalau da lur txakurre, ba tekot nik ikusitte txikerra ixte nitzenen, oidalau da"

**MIXER, mixerra:** mixar.

**OGIGASTAI, ogigastai:** ogigaztai, erbinude.

**OLLOGOR, ollógorra:** oilagorra.

**OTZO, otzó:** hartz.

**PISTI, pistí:** pizti; "ori pisti ori arratoi beten antzeko da"

**SAGU, sagú:** sagu; "armario ganen ta imintten gendun atxiñe, saguk a, koxu sedien a"

**SAGUSAR, sagusarra:** saguzahar.

**SATOR SULO, sator suló:** sator zulo.

**SATOR, satorrá:** sator.

**URTXAKUR, urtxákurre:** ur txakur.

### 11.2. TXORIAK

**AMILLOTXA, amillotxe:** amilotx; "amillotxe esta bellegi, amillotxe bellegi baño pintto"

**ANTZAR, antzarra:** antzar.

**ARRANO, arrano:** arrano; "arrano bai, orrek ikusten sirenen denporala dator esate sana beti"

**ARTATXORI, artatxori:** artatxori; "ba, txo-rikes egon san pertzekusiño itzela artatxorikes", "artatxori konpleto da lotzabako"

**ATXARRANO, atxarrano:** haitzarrano; "atxarrano atxiñe denporala ekarteun txori ixete san

**BASOLLAR, basollarra:** basoilar.

**BELA NAUSI, bela nausi:** bele nagusi.

**BELA TXIKER, bela txikerra:** bele txikar; "bela txikerra yaok or"

**BELA, béle:** bele

**BERDELOI, berdeloi:** berdeloi.

**BIDEGARRO, bidegarro:** birigarro

**BIREGARRO, birégarro:** birigarro.

**BIRIGARRO, birigarro:** birigarro; "karrake ie ie birigarro laseko txori ok"

**DURDURE, durdure:** durdura; "paseko txori da ori durdure"

**EGABERA, egábere:** hegabera

**EGASTI, egásti:** hegazti.

**ELAI, élai:** elai.

**EPER, eperrá:** eper

**EPERTIKERA, epertíkere:** epertikara, buztanikara.

**EPETX, epetxá:** epetx, txepetx.

**ESKULASO, eskulaso:** eskulaso.

**GABILLOI, gabillói:** gabiroti; "txitxakas atxiñe a, txitxakas solon eta miru a, bajatu rapido bera, ta koxu te eron ta olau bearrak bai, miru te gabi-lloi pere bai, erpakas koxitteusen, ta eroteusen"

**GABONTZ, gabóntza:** gauontz

**GASTELA SOSO, gastela soso:** gastela zozo; "jitano geittuten dotze oin gastela sosori"

**GAUONTZ, gauontza:** gauontz

**GIBERRI, giberrri:** txirri; " giberrri emen esaten dako"

**JILGERU, jilgeru:** karnaba.

**KARRAKA:1 karrake:** karranka; "karrake ie ie birigarro laseko txori ok"

**KUKU, kúku:1** kuku.

**LARRATXORI, larratxori:** larratxori.

**MARTI SOSO, marti soso:** zozo; "emen esaten dako sosori marti soso, bertokori, soso"

**MARTINTXU, martintxu:** martin arrantzale.

**MARTIÑ, martiñe:** martin arrantzale.

**MIKA, miké:** mika

**MIRU, mirú:** miru; "txitxakas atxiñe a, txitxakas solon eta miru a, bajatu rapido bera, ta koxu te eron ta olau bearrak bai, miru te gabilloi pere bai, erpakas koxitteusen, ta eroteusen, asaoti bijilateusen orrek biste ona deke antza, asaoti bijilateusen, non dabiltesan, eta euron parera eltxen danean, bajate san bera, ta yo in baleu les bea, ta koisteun erpakas ta eroteun, umek eta olan an ingerun badekeas, ba pertzekusiño itzela egote san"

**MOSOLO, mosólo:** inuzente.

**OKIL NAUSI, okil nausi:** okil nagusi.

**OKIL TXIKER, okil txikerra:** okil txiki.

**OKILL, okille:** okil; "usenik estaitt okille baño"

**PALOMA, palóme** uso.

**PARDILLO, pardílo:** pardilo.

**PATO, páto:** ahate; "koltxillak guk lumeas intte iki gendusen se patok egon sireles guren, lume eukitten gendun asko ta ostantzen a, sapeas bere ittesan, leku betzuten, guk lumeas ikitten gendun intte, ta itten

diros oyan kuadrakok eta gero lume sujetateko itten dakes yosturak, oingon klasera baya oin gausa fiñau deke barrun sartute orrek, lumeaskok oten siren guren, ta sapeas bere leku betzuten ikittesan intte, sapearri a, barruko bigunentxu edo aparta eta areas intte koltxille edo iru lau a, tela alkarrerri yositte bere bai"

**POSPOLIÑ, pospoliñé:** galeper.

**SASITXORI, sasitxori:** sasitxori; "sasitten ibiltten dana da sasitxori"

**SOSO, sosó:** zozo; "emen esaten dako sosori marti soso, bertokori, soso"

**TORKAS, torkasa:** uso torkaz; "torkasa bat, eta beste bat a, tortolilla esaten deutzena tortola"

**TORTOLA, tórtole:** uso tortola; "torkasa bat, eta beste bat a, tortolilla esaten deutzena tortola"

**TXINBO, txinbo:**1 txinbo; "txinbo, ikotan ibiltten dana, iko sasoiñ etorten dana"

**TXINDOR, txindorra:** txindor

**TXIO, txio:** txio.

**TXIRTA, txirte:** txirta

**TXONTA, txónte:** txonta.

**TXORI ABI, txori abi:** txori habi; "itxurrin goixen yonasanen a, txori abi bet egon da", "an elixako talletun a, txori abi asko, eta, txori abik e, topetan ta koisten ta tallek apurtu, ta monagillok giñen elixan ta abade beti aserre, olau beten e, ostabere yon ba, ta , an egon giñen amabik te kanpak yo ta"

**TXORI, txorí:**1 txori; "gero pertzekusiño itzela eukieun garik, txorikes, eta jentek itxi eutzen eaitteri gari" 2 iletako txori edo lazú.

**TXORIAMA, txoriame:** txoriama

**TXORIKUMA, txorikume:** txorikume.

**TXORITOKI, txoritoki:** txoritoki.

**URRETXINDOR, urretxindorra:** urretxindor.

**URRUMEDA, urrumedé:** urrumada.

### 11.3. NARRASTIAK/ANFIBIOAK

**BENENO, benéno:** pozoin.

**BIBORA, bíbore:** suge gorri.

**MUSKER, múskerra:** musker. "Muskerra pere, gona gorri dekona, entzunte dekot neu pere, gona gorri dekonari atzen segitten tzola, muskerrak a, estosu iños entzun? muskerrak agarraten badotzu saspí erritteko kanpak yo ber derela, soltateko, ak aginke iñeskeron, saspí erritteko kanpak yo ber dere"

**SAPABURU, sapaburú:** sapaburu; "sapaburu sapo itte ok, ala urgerixo"

**SAPÓ, sapó:** 1. apo; "sapaburu sapo itte ok, ala urgerixo" 2

**SIDOI, sidói:** ziraun.

**SIROI, sirói:** ziraun.

**SUGE BIBORA, suge bíbore:** sugegorri.

**SUGE, sugé:** suge.

**SUGELINDA, sugelindé:** sugelandara, sugandila.

**SUGOI:** "Bei bet, esnerik eseun soltaten etzean ta errape beterik, ta arrantzaka, etzeti urtenta taka, taka, taka, segidu i eutzen beyeri ser pasaten dakon, ta sugoya daon lekure, sugoyak edateutzon", "Sartenean barrun ikusi dot a, ikusi e! baya andi sugoya, bal bal

baltza! Abasenen, iri armario, aspire, ta aspiren barrun egoten siren kasuelak eta, urune ta an sobraten sirenak, eta sartenan bueltan, bueltan, bueltan, baya selau sugoya! ta ordun ixeten siren labasuk eta itteko edo egosarik txarrintzat itteko otakarra erote san eta an eronta badau estakitt.", "Neuri bere, illundi beten, ori estat astuko, palu bet, uren olan on san eurberea, urek iñeko arrakadatan, baya illundute les egon san, ba sugoya an sendo sendo egon san, ba nik palu bet dala ta ukutu paluri, biribildu san! ta saltuke berantza, baya andi! baya pelota baten modun para!.", "Amen a, ser esangotzut nire pantorrille baño lodiau ixen da sugoya ta esiñ ill ixen deure, esiñ ill ixen deure urte batzuten, iñondik iñora beres, ta desaparecido da.", "Esateuren atxiñe San Lorentzoti beti, beti, beti, urten urten urten Artakotxe ondoko errepara bajaten dala sugoya, andi San Lorentzoko erminttati, uden ure falta dala, bueltaka, bueltaka."

**URGERIXO, urgerixó:** urgarixo, igela; "sapa-buru sapo itte ok, ala urgerixo"

### 11.4. ARRAINAK

**AMARRATZ, amárratza:** olagarro

**ANGIRA, angíre:** aingira; "angirak koisten siren udabarriñ"

**ANGULA, angúle:** angula; "angulak koisten siren ba, seraas, baya esaten dakonaas.

**ARRAIÑ, arrañé:** arrain.

**ARRANKARI, arrankarí:** arrankari.

**BARBU, barbu:** barbu.

**KANGREJO, kangréjo:** karramarro.

**KARRAMARRU, karramárru:**1.karramarro.

**KISKAILLU, kiskáillu:** kiskailu

**KISKILLA, kiskílle:** kiskailu.

**KISKILLU, kiskíllu:** kiskailu.

**LAPA, lapé:** lapa.

**LOIÑA, loiñe:** loina.

**MOJOJÓI, mojojói:** mojojoi.

### 11.5. INSEKTUAK

**AKAN, akana:** akan.

**AR, arrá:** har.

**ARAÑA, arañé:** aramu.

**ARDI, ardí:** ardi, arkakuxo; " ardi taus oyan"

**ARGIXERI, argixerí:** argizari.

**BARAKILLE, barakillé:** bare.

**BASPI, báspi:** baspi, zorrikume; "baspi sayen antzeko sera da", "nik estot entzun iños sorri baspitti itten dala e"

**BITXO, bítxo:** mamarro

**ELTXO, eltxó:** eltxo

**EPERTARGI, epertargí:** epertargi, ipurtargi.

**ERLAUNTZA, erlauntze:** erlauntz.

**ERLAUTZA, erlautze:** erlauntz.

**ERLE, erlé:** erle

**ERUGE, erugé:** har, eruga; "eruge lau da, eruge lau baya laburtxu ixeten da"



**ESPADA, espáde:** ezpara, ezpada; "espada ori ya beste ser ba ta bai, espade, ori kaballerik eukitten deuna da"

**ESTEN, estena:** ezten.

**ESTI, estí:** ezti

**EULI NAUSI, euli náusi:** euli nagusi, gana-duaren euli handia.

**EULI, eulí:** euli ; "gorte eulis beteri tau"

**GAUN, gáune:** gaun, amaraun.

**GRILLU, gríllu:** txirri-txirri.

**IFERNUKO KATU, infernuko katú:** ehuntzango.

**INFERNUKO KATU, infernuko katú:** ehuntzango.

**INYURRI, inyurri:** inurri.

**IÑURRI, ñurri, iñurri:** inurri.

**KAKARRALDO, kakárraldo:** 1.kakarraldo

**KAPAR, kaparra:** kapar

**KARAKOL, karakolá:** barrazkilo; "karakolak leku askotan yaten siren bai"

**KOKO:** koko, kotxo.

**KOTXO, kotxó:** koko, kotxo.

**KUKARATXA, kukaratxe:** labezomorro

**LIBELULA, libélule :** orratz.

**LUPU, lupú:** lupu; "lupu txikerra da, aulaseko a, buru ta gero bustena olan", "poson oten direna tire lupuk"

**MAMARRO, mámarro:** mamarro.

**MAMARRU, mámarru:** mamarro.

**MARI URKULU, marí urkulu:** mari artazi.

**MARITXU TALLETAKO, maritxu táletako:** marigorri.

**MOSKITTU, moskítu:** eltxo.

**ORROTZ, órrotza:** mari sorgin.

**PASPI, páspi:** baspi.

**PIKADA, pikadé:** ziztada.

**SALTAMATXINO, saltamatxíno:** saltamatxi-no.

**SITZ, sitzé:** sits.

**SORRI, sorrí:** zorri; "garbikusi ote san an etzen barres, ta beti oten siren sorris beterik"

**TXINTXE, txíntxe:** tximintxa.

**TXIRPILLOTA, txirpilloté:** tximeleta

**URUBIO, urúbio:** urubio, kurubio.

**USEN, usená:** izain

**UXEN, uxena:** izain; "berdiñe ote san lekun uxenak egoten siren "

## 11.6. GANADUA

**ADAR, adarrá:** adar; "adarrak eta ondo deko-senak, armere ondo dekona ori da busterrri beye, armere ona dekona"

**AIDA:** aida; ganaduri aurrera egiteko esaten zaio.

**APATX, apatxa:** apatx; "apatxa pere solta itten dakes, nafarreries"

**APATXARTEKO, apatxarteko:** apatxarteko.

**APATXETAKO, apatxetako:** apatxarteko.

**AR, arrá:** ar

**ARMERA, armere:** armera; "adarrak eta ondo dekosenak, armere ondo dekona ori da busterrri beye, armera ona dekona"

**ARRAN, arraná:** arran.

**ASKA, aské:** 1 aska, estramina. 2 aska, edateko lekua. 3 txerriek jateko lekua.

**ASPI, aspi:** 2 azpi, ganaduarentzat egiten den oherako materiala.

**ASPIGARRI, aspigarri:** azpigarri.

**AUSNAR, ausnarra:** hausnar; "ganadu ibiltten da ausnar"

**BASO BEI, baso beyé:** basabehi.

**BEGAI, begaya:** begai; "begaye eme da"

**BEGEI, begeye:** begai

**BEI AR, bei arra:** behi antzu

**BEI, beyé:** behi; "beyek txal bat in deu", "bururi aittuten dako beyeri"

**BEKOROTZ, bekorotzá:** bekorotz.

**BUELTA ATZERA:** buelta egiteko ganaduari esaten zaio.

**BUSTEN, busténa:** buzten; "lupu txikerra da, aulaseko a, buru ta gero bustena olan"

**BUSTERRI BEI, busterrri bei:** buztarri behi; "adarrak eta ondo dekosenak, armere ondo dekona ori da busterrri beye, armere ona dekona"

**EME, emé:** eme.

**ERASTALDI, erastaldi:** erastaldi.

**ERNARI:** ernari; "ernari lotu da"

**ERRAPE, érrape:** errape

**ERRI BEI, erri beye:** baso behi

**ERRI GANADU, erri ganadu:** baso ganadu

**ERRO, erró:** erro

**ESNATZA, esnatze** esne asko ematen duen behi.

**ESNE BARRI, esne barri:** oritz; "esne barri txala inparri daonen, esne, asikerako esne yan esitteko moduko ixeten da"

**ESNE BEI, esne beye:** esne behi.

**ESNE LOI, esne loye:** oritz

**ESNE, esné:** esne; "nik umeri esne emon dotzet", "estaipa selan medikuk agindute ala selan ixengo san baya, ori ba, sarri entzun du, basalduko iñasio astok salba deu, aston esneas salba sala, txikitxu ixen sanen, nik estaipa medikuk aginduko baetzen ala selan ixen san baya"

**ESPILL, espille:** 1 ganaduak buruan edukitzen duen pinta; "pinta suri deko bere bai tte espille"

**ESTRAMIÑE, estramiñe:** estramina; "estra-miñe askan, ori isten da ba, kasureko, tabloye imintten da aspitti, onen altura ingerun, ta gero aurreti imintten dako, egur bet olan luse, estramiñe ayeri esaten dako"

**EURT ATZERA:** ganaduari esaten zaio atzera egiteko.

**EUSNAR, eusnarra:** hausnar.

**GANADU GORRI, ganadu gorri:** ganadu gorri, abelgorri

**GANADU, ganadú:** ganadu; "ganadun kallo les da txarriñ estomagu", "albañe deko, ori ganaduri esate akon ori atxiñe, berotute albañen dau ori"

**GARROTILLUN, garrotillune:** garrotilo, ganaduaren gaisoa; "garrotillune samako seoseri esate akon aurki"

**GOSALA, gosale:** behiei prestatzen zaien ja-teko.

**IDI, idí:** idi; "idi indertzuau da asto baño"

**IXO, íxo:** ixo.

**MURRUKE, murrúke:** murruka.

**MURRUSE**, **murrúse**: murrusa.  
**NAFARRERI**, **nafarrerri**: apatxarteko; "apatxa pere solta itten dakes, nafarrerries"  
**NARRU**, **narrú**: narru; "gure aittittek makiña bat abarka in deu, narrues"  
**NEURRI KORDEL**, **neurri kordela**: neurri kordel; ganaduaren pisua kalkulatzen erabiltzen den kordela.  
**OKELARAKO BEI**, **okelarako beye**: okelarako behi.  
**OPILL**.behiei errapean txala egin eta ostean egiten zaizkien gogortasunak.  
**PENTZU**, **pentzú**: pentsu.  
**SANKASTEL**, **sankastela**: ganaduaren atzeko anken tibia eta karpoaren artikulazioa.  
**SARRANTXA**, **sarrantxe**: txarrantxa; "sepillu esta sarrantxe, sepillu antzeko baya, ba seresko metaliku edo"  
**SATZ**, **satzá**: sats; "satza baño abono isten da bedarrarako gero ebateko, satzak enbarasu itten deu"  
**SEKOR**, **sekorrá**: zekor.  
**SUSERA**: susera.  
**TXAL**, **txalá**: xahal, txahal; "beyek txal bat in deu"  
**UMETOKI**, **umetoki**: umetoki.  
**URRUSE**, **urruse**: urruxa; "urruse auntzen enbre danari esaten dotzu guk emen "

### 11.7. TXERRIAK

**ANDARRAKI**, **andarraki**: birikietako mintza; "andarraki, mintze bateles iste san", "andarraki biotzan ingerun egoten dan a, telatxu bete lau bateri, te eskiñati itten deu giarre, tela ba lau sertz bet ixeten da asaltxu bet biotzaas urteten deu ak, biotzan ingerun urteten deu ak, eta eskiñati itten deu a, ba alau sifradatxu bet burubill antzeko isten deu, te sifradatxu bet itten deu okele"  
**ANDARREKI**, **andarreki**: birikietako mintza.  
**APO**, **apó**: txerri arra, kumak egiteko.  
**ARKELA**, **arkele**: txerri eme.  
**ARKO**, **arkó**: makera, txerri eme kumak egiteko.  
**ASAL 2** azal; "eta eskeitte imiñi, ba, yalgi deiñ a, lotxen dakon odola edo lotu dakon odola edo asala"  
**BARASARA**, **barasare**: bare aldean txerriak edukitzen duen sarea; baresare; "ori barasara kendu te gero tripek ataraten dire oso osorik, al dala apurtu barik baldetxure ta tripek atarakon gantzagik ataraten dire"  
**BARE**, **baré**: bare.  
**BARESARE**, **baresare**: baresare.  
**BELA FIRU**, **bela firu**: odolosteak lotzeko haria edo kordela; "bela firu, firu baño lodiau baya ostantzen fin fiñe isten da, albandorrotza usate san orreas firues, firu firu esan ixeten ori firu baño lodiau"  
**BIRILLE**, **birille**: txizpegi; "birille oiñ estu usaten baya len usate san botari tte ederi emoteko", "mantillek eta ataraten dire, lelau ba txarri garbitten danen tripes gora imiñi, eta sera itten dako lelengo lelengo erdi erditti ebai tte birille"  
**BUSKENTZ**, **buskentzá**: odoloste; "buskentzak, eta txorixo, txarriñ estomague garbittu ittesan, kallok,

sera, ganadun kallo les da txarriñ estomagu", "bai ordun otesan kostunbrea ba, barriuan buskentza, giarra satitxu bet edo, gibel satitxu bet edo, eta buskentza, ta odoloste, buskentza lodie eta beste bat txikerra itten sana odoloste, ta umek badaus ba, odoloste bat edo bi, umek dausen lekure eta buskentza ba, eroten siren, eta gero eurok iltten derenen ostabere ba, orde", "Erregala itte san atxiñe, ba buskentz bat, eta odoloste bat, eta ba fameli andi edo ume asko badau odoloste bi imintten siren, ba gibel satitxu bet, eta biriki satitxu bet eta, giarra satitxu bet, eta urdei satitxu bet bere bai, txarri bera il barik badau txarri iltte badau etzen deko urdei tte ari urdeirik es"

**BUSKENTZA SALTZA**, **buskentza saltze**: buskentza saltsa; "buskentza saltzeas esetu dot itten"

**BUSKENTZESTE**, **buskentzesté**: buskentza heste.

**EGOSARI**, **egosari**: egosari; txerrientzat egiten den jatekoa; "ori egosari egosi itten da ta beste gordiñik emon"

**GANTXO**, **gántxo**:1 gantxo, txerria hiltzeko erabiltzen dena; "iltteko gantxo bateas koisten deude txarrie, koisten deu karniseruk, papadati, gantxo bateas, agarraten dotze ordun kaderatati tte altzaten deude mai beten ganera", "txarri ill?, txarri illa , gantxo bateas koisten dee lelao morrotik, eta ol baten ganera altzaten dee gero lagun bik edo iruk, eta kutxilloas".

**GANTXU**, **gántxu**: gantxo, txerria hiltzeko erabiltzen dena.

**GANTZAGI**, **gantzagí**: gantzagi; "ori barasara kendu te gero tripek ataraten dire oso osorik, al dala apurtu barik baldetxure ta tripek atarakon gantzagik ataraten dire"

**GASUN ASKA**, **gasun aské**: gazun aska; "ure imiñi tte odola kendu dakion, gatzaas, ara okele bota, gatzure esateutzen ayeri, ta an euki, gero andi atara ordun, esetu dot nik etzen ori, gatzan ganen iminttesan, gasun aske esateutzen orreri, oiñ itten dere imiñi gatza ureas"

**GIARRA**, **giárre**: giarra; "orrek kendueskeron ba, giarra gitxi dau"

**GIERRA**, **giérre**: giarra.

**GIRRINTZE**, **girrintze**:1 gurdiaren zarata. 2 txerriaren hotsa.

**KOROTZ**, **korotzá**: korotz.

**KOTXILL**, **kotxillé**: pernilaren apatxa, punta; "pernillek eukitten deuna, bolatxues selan eukitten deun andi gora ankako ayeri esaten tzu kotxille"

**LOPE**, **lopé**: lope

**MANTILLA**, **mantille**: mantila; "ak mantille pere buskentzak itteko balio deu", "mantillek eta ataraten dire, lelau ba txarri garbitten danen tripes gora imiñi, eta sera itten dako lelengo lelengo erdi erditti ebai tte birille"

**MATANTZA**, **matántze**: hiltze.

**ODOLESTE**, **odóleste**: odoloste, odolki.

**ODOLOSTE**, **odóloste**: odoloste, odolki; "ta umek badaus ba odoloste bat edo bi, umek dausen lekure eta buskentza ba, eroten siren, eta gero eurok iltten derenen ostabere ba orde"

**ORDOTZ, ordotza:** ordotz, aketz.

**PERNIL KOTXILL, pernil kotxillé:** pernil kotxil, perniletan dagoen apatxa eta azken zatia da.

**PERNILL, pernille:** urdaiazpiko, pernil; "apartateusen, sayetzak, solomoak, pernillek, eta gero faldak eta orrek txorixotarako batzuk, beste batzuk a, urdeiri itxitteutzesan faldak etzen yateko, prijidute", "arrantziotu guk geittuten geuntzen urdei edo pernille ya kolore kanbiata plantaten danen"

**SOLOMO, solómo:** solomo; "apartateusen, sayetzak, solomoak, pernillek, eta gero faldak eta orrek txorixotarako batzuk, beste batzuk a, urdeiri itxitteutzesan faldak etzen yateko, prijidute", "leku betzuten igual jente asko, eta gibela ta solomo, eta danak igual yaten dittues egun beten, baya egun betzuten aguantaten deu"

**SORBURU, sorburu:** sorburu, txerriaren aurreko hankak.

**SURINGA, suringe:** zuringa.

**TXARRI APATX, txarri apatxa:** txerri apatx.

**TXARRI MATANTZA, txarri matántze:** txerri hiltze; "gitxi esetu dot nik txitxi burruntxi ori a, txarri matantza osten, txorixo ta daosenen", "Txarri iltte san egunen itte san, goixeti txarri ill, sortziretako ya jentea prest egote san, eta kopatxu bet artxe san, kofiaka ta anise nastata ta galletatxu betzuk yan, ori esate san dala derrigorresko se espabere txarrik gatzik eseula artuten, lelau txarrik gatzetan imintten siren kontzerbateko urte gustireko, gasun askan, eta esate san matarifek orikope ta galletatxuk yaten espadittu gatzik estaula artuten, ordun a, alegre alegre txarri iltte san, irak lelaurik euki ber siren preparata, eta bestera kinpule txikertu te egosi, saltzagarrik geittuten dake buskentzak itteko. Txarri iltteko lelengo ber dosu kasik iru gixon, len ber ixeten siren, oiñ igual batek itten deu, baya ordun iru, txarri agarrateko, aurreti bat eta atzeta bi, eta gero matarife klaro!, gantxoas matarife, odola koyu ber da buskentzak itteko klaro! matarifen grasi dau txarrik odola emon daiila, se kutxillo sartu te odolik espadau buskentzik estau, ak odola teko grasi, a teko, ak urtel dayela odolak, ta senbet eta giu obeto, senbet eta obeto sangra txarrie grasi giu edo, gero ill tte erre itten da irakas, erreten da txarri, gero garbittu, talle kaskues, ureas eta talle kaskues, atxiñe posoti ure koyu te asunbre erdiko tankeas ure bota txarri tte beste bat talleas arraskaten, asunbre erdiko tankek oiñ orre pere estaus, asko da gosoau urdei bere gosoau da ireas erreko, gero garbittu, tripek atara, bueno mantillek eta ataraten dire, lelau ba txarri garbitten danen tripes gora imiñi, eta sera itten dako lelengo lelengo erdi erditi ebai tte birille, birille oiñ estu usaten baya len usate san botari tte ederi emoteko, idiñ ederi emoten dotzesu te lotxen dire ederto, ori lelengo kentxen dako, ta gero mantille, mantilleas dator baso ta barasare, ori barasara kendu te gero tripek ataraten dire oso osorik, al dala apurtu barik baldetxure ta tripek atarakon gantzagik ataraten dire, ak mantille pere buskentzak itteko balio deu, orrek atarakoan, barruti garbi garbi in trapu beteas iri txarri ondo ondo, eta eskei, eta goitti bera erre txarri

kokoteti bustenera, burutxe an imiñi, oiñ ori esta itten, siketu ditten, ori ixete san, klaro, ba, txarrik odola ber dan modun emon espadeu edo gitxitxu emon badeu barrun lotxen dako odola, ta klaro erretako txarri, mayeti bera do, ta senbet eta mogiminttu giu klaro odolak urten itten tzu, eta odolak urten estaiñ ori sape imintten dako gero barrun dekon odola aprobetxateko, sapatxu sartxe akon a, kutxillo sulon"

**TXARRI, txarri:** txerri; "txarri ill?, txarri ill a , gantxo bateas koisten dee lelao morrotik, eta ol baten ganera altzaten dee gero lagun bik edo iruk, eta kutxilloas", "txarrie, erre itte san, dekon ule gusti erre, garbittu, eta tripak atara gero, tripak kendu, tripek, gustik, eta eskeitte imiñi ba, yalgi deiñ, lotxen dakon odola edo lotu dakon odola edo asala, asala in dakion a, iste san, eskeitte iste san, goixen ill eta illunderarten", "Gero ba, gero txikertuteun karniseruk, apartateusen, sayetzak, solomoak, pernillek, eta faldak eta orrek txorixotarako batzuk, beste batzuk a, urdeiri itxitteutzesan faldak etzen yateko, prijidute, eta buru, eta asurrek eta orrek ba, gero gatzuretaren imintten siren, eta orrek kontzerbatan siren gero denpora andiñ, gatzuretati atara, otalau ordugarrenen edo ataraten siren eta beste gatz apur beteas imintteen eta orrek arik eta akaba arten."

**TXARRIKUMA, txarrikumé:** txerrikume.

**TXARRITOKI, txarritoki:** txerritoki

**TXISPEGI, txispegi:** txerriaren zila, eskegita eukitzen zen sukaldean gero oinetakoei lustrea emateko.

**TXORIXO ESTE, txoríxo este:** txorizo heste.

**TXORIXO KORDA, txoríxo korde:** txorizo korda.

**TXORIXO, txoríxo:** txorizo; "apartateusen, sayetzak, solomoak, pernillek, eta gero faldak eta orrek txorixotarako batzuk, beste batzuk a, urdeiri itxitteutzesan faldak etzen yateko, prijidute", "txorixok a, atxiñe, gordete san, in bere gitxi, se pernillek a ba, kura itten siren, pernillek eta paletillak eta txorixo gitxi itte san, se solomo bere esan pikaten lekuri geyenen ta orrek kendueskeron ba, giarra gitxi dau, eta, artagaro, artagaro arten sartu, eta an kontzerbatan siren lelao, eta gero, gero asi san jente ya ba, orio edo koipe edotan sartxen lapikotan, baya nire txikitxu denporan, artagaro arten, kaxan, sartu an eta, axek koxu sedeñ, axek koisten badeu ya kolore galdu itten deu, arrantzio kolore artxen deu, txorixok, emeko txorixok, kanpokok esteu artxen baya"

**URDEI ASAL, úrdei asala:** urdai azal; "urdei asala kendu, eta gero gordeta euki arriñ aspiñ, eta iru bariku segiduten iñ, eta desaparecido garik "

**URDEI, úrdei, úrdeye:** urdai; "txarri iltten dan lekun urdei sati beteas ", "afarie, ba leku betzuten porru salde ta patata saltza berden ta olan bere usaten siren, guren geuren etzen esta iños olau, etzen, ba, urdei prijidu, urdei satitxu bana edo prijidu, eta ak emon deun a, koipetan, ba kinpula bat pikata, gustaten daken lekun, kinpule pikata prijidu eta areas urdeyes nastea a kinpule yate san"

**URDEILL, urdeillé:** urdail; "gero beste bat lodiao, urdeille edo esaten dakona betatute san"

**URDILL**, **urdillé**: urdail; "ori urdille itte san bete bete iñ tte gero laban ", "Gero beste bat lodiao, urdeille edo esaten dakona betatute san, oseake atxiñe txarriñ este paño esiren enpleaten, oin karniserittik ta ekarten dires, estek a, buskentzak itteko, iltteko gantxo bateas koisten deude txarrie, koisten deu karniseruk, papadati, gantxo bateas, agarraten dotze ordun kaderatati tte altzaten deude mai beten ganera, kutxilloas gero a, karniseru oten da kutxillo eskun deule begire, eta kutxillo sartzen dotzenezan andra bat a, ondón balde sabal bateas odola koisteko, il tte gero, ya segidun, il tte segidun itten da erre, ta gero garbittu, eta gero tripe atara, goixen iltten da txarrie ta imintten da eskeitte gauerarten, onena iltteko ixeten da, nobienbren akabun disienbren asikere, gero gauean etorte san karniseru bet etorte san, eta imiñi mai beten ganean, eta, atxiñe itteakon ba, lepoan erdi erditti kortade, eta gero andi urdei ebate san, solomoak eta solomilloak eta sayetzak, kendu, eta gero a kortade ikitteun an, ta ba, erdibi itte san, gero oiñ a, txarrik txikitxuk iltten direles ba, ori kortade ori estako itten, atara barrukok a, solomillo solomok gibela, bueno gibela eta orrek arten ataraten dires, tripeas ataraten dires, imintten danen barruko sera kendute ba, norberak gure deun tamañuko urdei itxitten da lepoko erdi erdiñ, eta gero faldak, txorixok itten dires, pernillekas, pernillek pikaeskeron, baya pernillek pika esean faldarik estake aprobetxaten, faldak itxi ber dire urdeitarako, se gixentzu urdeitzu urteten deu espaberen, pernille dales giarratzue pernilleti atarakosu falde gusti a, urdei aputxu bet kendu asalaas nasteko urdeitxu kendu, eta beste danaas txorixo itten dosu, leku betzuten igual jente asko, eta gibela ta solomo, eta danak igual yaten dittues egun beten, baya egun betzuten aguantaten deu"

### 11.8. ARDIAK/AHUNTZAK

**AKAR**, **akarra**: aker.  
**ARDI BORDA**, **ardi bordé**: ardi borda.  
**ARDI NARRU**, **ardi narrú**: ardi narru.  
**ARDI TXABOLA**, **ardi txabolé**: ardi txabola; "arditoki esateotzen salla bat, ardi txabolak on siren lekun"  
**ARDI TXAKUR**, **ardi txakurré**: artzakur.  
**ARDI**, **ardí**: 1 ardi; "orrek ardik dakardes"  
**ARDISATZ**, **ardisatzá**: ardi sats.  
**ARDITOKI**, **arditokí**: arditoki; "arditoki an Margaltzan dau, arditoki esateotzen salla bat, ardi txabolak on siren lekun"  
**ARITTO**, **arítto**: arito.  
**ARKARA**: arkara.  
**ARKASTE**, **arkaste**: arkazte; "oiñ yayoten da artxo, gero udegoyenen orrek enjeneralen ume eskatuten dere ta igual eskatu barik lotxen dire, orreri esaten deutze arkaste"  
**ARKUMA**, **arkúme**: arkume.  
**ARTEGI**, **artegi**: artalde  
**ARTXO**, **artxó**: artxo, arkume; "oiñ yayoten da artxo, gero udegoyenen orrek enjeneralen ume

eskatuten dere ta igual eskatu barik lotxen dire, orreri esaten deutze arkaste"

**AUMA**, **aumé**: ahuntzume; "aume iltte san ordun"

**AUNTZ**, **auntzé**: ahuntz; "fulano teko, baya umek intte deko, eta oiñ umek asi ttulakon ak auntze esteu emon gure", "an estala agertu auntzik, an estau amabigarrenik"

**BEKOKORRE**: bekokor.

**UMA**, **umé**: kuma, kume; "oiñ yayoten da artxo, gero udegoyenen orrek enjeneralen ume eskatuten dere ta igual eskatu barik lotxen dire, orreri esaten deutze arkaste "

### 11.9. EKINOAK

**ARRANTZA**, **arrantze**: arrantza.

**ARRE**, **árre**: asto eta zaldiei aurrera egiteko esaten zaie; "samati agarra astori tte ia astotxu etzera yon ber du te arre"

**ASTO ESNE**, **asto esne**: asto esne; "nire lengusu bet a, asto esneas asi san"

**ASTO**, **astó**: 1 asto (Zool.); "ordun karro ta asto euki gendusen", "estaipa selan medikuk agindute ala selan ixengo san baya, ori ba, sarri entzun du, basalduko iñasio astok salba deu, aston esneas salba sala, txikitxu ixen sanen, nik estaipa medi-kuk aginduko baeutzen ala selan ixen san baya"

**ASTOAR**, **astóarrá**: astoar.

**ASTOEME**, **astoemé**: astoeme.

**BASTA**, **baste**: basta, astotan erabiltzen den montura.

**BIOR**, **biorra**: behor

**BIORKA**, **biorke**: behorka.

**BURRIÑO**, **burriño**: burrino.

**ERRADURA**, **erradúre**: perra

**GRÍNE**, **gríñé**: grina.

**IRRINTZE**, **irrintze**: irrintza

**IRRINTZI**, **irrintzi**: irrintzi.

**KABALLERI**, **kaballeri**: zalditeri; "espada ori ya beste ser ba ta bai, espade, ori kaballerik eukitten deuna da"

**KABALLO**, **kabálo**: zaldi; "kaballo partida bat ikusi du"

**KABESERA**, **kabesére**: zaldi eta astoen buruko.

**KASKU**, **kásku**: apatx.

**KOLLAR**, **kollarrá**: zaldien koilarra

**MANDO**: mando.

**MULO**, **múlo**: mando. "Esateuden a, Bentan eta Trokulu bittarten (Laukizen) dausela saspí mando karga urregorri."

**O**: ixo

**OSTIKEDA**, **ostikedé**: ostikada

**PETRAL**, **petrala**: petral, buztanpeko.

**POTRO**, **pótro**: zaldikume.

**SALDI**, **saldí**: zaldi; "saldik solotara sartu sedittesan, aurreko kadera biek katekas amarrata ibilttesan"

**SALDIKUMA**, **saldikumé**: zaldikume.

**SILLETA**, **sillete**: zaldi eta astoekin erabiltzen den aparagailua basta antzekoa.

**URKE**, **urké**: txalma

**USTIKEDA**, **ustikedé**: ostikada.

### 11.10. OILOAK

**ABI, ábi:** habia; "arrikeda bateas apurtu du, abi", "txoriagola imiñi, gari solon, eta txoriagolan artatxorik abi innte bertan"

**ABIXERI, abixeri:** 1 habizari; habian ezartzen den gezurrezko arraultza oiloak egiten bertara joan daitezten. 2 Usteldutako arraultza.

**ARROTZA GORRINGO, árrotza gorringo:** Amanita caesarea; "ba, klase asko yaten siren len, yaten siren berretxikoak, arrotza gorringoak, ongoak, gibel urdiñek, estaitt giau bere bai"

**ARROTZA, árrotze:** arraultza; "aittek arrotza bat eta umek katillu bet esne indaban osten", "arrotzak ya galdute daosenen abixerittute"

**ARROTZASAL, árrotzasala:** arraultzazal.

**ARRUTZA, árrotze:** arraultza; "ollok muden daus, esteude arrutzarik itten muden daus ta"

**ASTRAKA, astráka:** astraka

**BIRO, biró:** biro.

**EGO, egó:** hego, hegal.

**EGOPE, égope:** hegope, hegalpe.

**GANGAR, gángarra:** gangar

**GORRINGO, gorringo:** gorringo.

**KAKARAKA, kákaraka:** kakaraka.

**KUKURRUKU, kúkurruku:** kukurruku

**LOKA, lóka:** loka.

**LUMA, lumé:** luma; "koltxillak guk lumeas innte iki gendusen se patok egon sireles guren, lume eukitten gendun asko ta ostantzen a, sapeas bere ittesan, leku betzuten, guk lumeas ikitten gendun innte, ta itten dires oyan kuadrakok eta gero lume sujetateko itten dakes yosturak, oingon klasera baya oin gausa fiñau deke barrun sartute orrek, lumeaskok oten siren guren, ta sapeas bere leku betzuten ikittesan innte, sapearri a, barruko bigunentxu edo aparta eta areas innte koltxille edo iru lau a, tela alkarrerri yositte bere bai"

**MINTZE, mintzé:** mintz; "andarreke, mintze bateles iste san"

**MINTZEBAKO ARRUTZE:** mintzebako arraultza

**OLLANDA, ollandé:** oilanda.

**OLLAR, óllarra:** oilar.

**OLLEDA, ollendé:** oilanda.

**OLLO LOKA, olló loka:** oilo loka.

**OLLO, olló:** oilo; "ollok erosi eusen"

**OLLOKI, ollóki:** oiloki.

**OLLOSKO, óllosko:** oilasko; "senbet ollosko emon dotzesus?"

**OLLOTOKI, ollotóki:** oilotoki, oilotegi.

**OTA, ote:** ota, oilotokietan oiloek lo egin dezaten eukitzen den armadizoa

**PIKU, pikú:** moko.

**PIPITTA, pipitte:** pipita; oiloen gaisoa.

**SURINGO, suríngo:** zuringo.

**TXITA, txité:** txita.

**TXITXA, txité:** txita; "txitxakas atxiñe a, txitxakas solon eta miru a, bajatu rapido bera, ta koxu te eron ta olau bearrak bai"

### 11.11. GAINERAKO ANIMALIAK

**AMURRU, amúrru:** amorru

**AUSI, áusi:** ahausi.

**EROSTA, eroste:** erosta.

**ERPA, erpé:** erpa, txerpa; "ta koisteun erpakas ta eroteun"

**KATU, katú:** katu; "motza tirelako katu baltzak, suri gustaten datzus?, niri estates gustaten e", "baten batzuk esateesan orrek gausak ikusi dittusela katu baltzak, katu baltza ba, sorgin bolbidute katu a, ukusten dala, nik estot iños ikusi, katu baltza sendaille txarra da etzen ta, pentza beres katu baltzik eukitte"

**KONEJERA, konejére:** untxi kaiola.

**KONEJU, konéju :** untxi; "koneju gitxi ote san gure gaste denporan"

**MITXIÑA:** mitxina, katuari deitzeko erabiltzen da.

**OGERA:** txakurraren zela

**OTXA, ótxa:** txakurrei esaten zaie eraso egin dezaten

**TOMAKI, tómaki:** txakurrari esaten zaio aldentzeko; "tomaki esanta estatzu yongo baya!"

**TXAKUR, txakurré:** txakur; "txakurrek ausi itten deu sarata bat entzuten deuneko", "txaku-rreri agarra otzet"

**TXAKURKUMA, txakurkumé:** txakurkume.

**TXERPA, txerpé:** txerpa, erpa.

## 12. LANDARERIA.

Landareriari buruzko hiztegia arbolak, landarak, ortuariak, frutuak, artoa, garia eta landareen atalei buruzko hiztegiñoek osatzen dute.

### 12.1. ARBOLAK

**ALTZ, altza:** altz

**AMETZ, ametza:** ametz; "aretxen antzeko da ametza"

**ARBOLA, árbole:** arbola; "suk imingo seunke arbola bat"

**ARBUSTO, arbústo:** zuhaixka.

**ARETI, aresti:** harizti.

**ARETX, aretxá:** haritz; "aretxen a, ola onena-taringo da"

**ARETXA, aretxé:** haritz; "gabon egunetarako sugarrie espesiala ekarte san, aretxe, siketuko aretxe edo"

**ARISTI, arísti:** harizti; "aristi ixen sanen a, oin solok innte dau dana baya, aristi ixen san a"

**ARITX, arité:** haritz; "etzero ekarritte ba, aritze bada trontzea ta satik in tte imiñi gabonatarako, aparteko gausak in ber direlako seraas, gabonatan"

**ARKASI, arkási:** arkazi.

**ARTE, arté:** arte (Bot.).

**ARTEDI, artedi:** artadi.

**ASKAR, askarra:** azkar, aztigar; "askarra arbole dau"

eraitteri gari" 2 buruko zahi; "baspi sayen antzeko sera da"

**EUKALITTU, eukalittu:** eukalitu. Eucaliptus globulus.

**FAGO, fagó:** pago, bago.

**FAGODI, fagódi:** pagodi, fagodi

**GARRASTA, garraste:** garrazta; "garrastea, arbole dau, arbole da garraste, txikerra danen txikerra ta andi danen andi"

**GASTAÑADI, gastañadi:** gaztainadi

**GOROSTI, gorósti:** gorosti.

**GURBIXA, gurbixe:** gurbiza.

**IKONDO, ikondo:** ikondo.

**LEIXAR, leixarrá:** leizar.

**LEXAR, lexarrá:** leizar

**OLMO, olmo:**Zumar

**PAGO, pagó:** pago.

**PAGODI, pagódi:** pagadi.

**PIÑU, piñú:** pinu; "piñuk bota sireneko denporako ixengo da", "piñu te olan bai a, afrontuaittik eta olan etze albon eta olan imintte bai baya ostantzen es", "Botateko bai a, urekora ta urepera esateuden, orrek eseun eukitten apenas urterik a, oseake, piñuk iminttesan, ba serratu serratu, se asko falta itten deu igual, serratu imintte san leleko lekun eta, gero ba, ukusten danen ya martxan dau, ba itte san entresake, itxitteuden a ba, distantzi ber deunaas, baya es urterik es eser orrek a, arik eta piñu martxan planta arten basoa, piñu artaburuk batu ber dires, eta piñu artaburuk, beroas, sabaldu itten dires, piñu artaburu alaseko, itten da, eta soltaten deu asi, barrun deko asi, baya asi txiki txikitxu, ser esangot lenteja baten antzeko tamañuko edo, asi baltza baltza, eukitten deu, eta a eraitten da, atxurrek an bason usaten dires, ba, normalak es, arratxurre esateakon a, a luse dekenak, olan gausa meak ebateko, oseake esto itteko egurrek, ebateko isten siren au baño loditxuauk edo onen tamañukok eta loditxuauk, aik ebateko erotesan ariotza, ori asta barik isten da, beorrek eukitten deu agarrateko, igual sein matxete baten antzeko, da ori, matxete baten estiloko baya matxetek kurbe dekoles orrek artesin ba, kuadru bet, apur bet lusinge, matxeta pere kurbe deko"

**PIÑUDI, piñudi:** pinudi.

**SAGARDI, ságardí:** sagardi.

**SAGARRONDO, sagárrondo:** sagarrondo.

**SARATZ, saratza:** sarats.

**SINTTUDI, sinttudi:** harizti luzanga; "sinttudie egon san Butroin bere egon san, aritxek a, andik, troso bat, salla bat, itzela, aritx andikes ta ari geittute akon sinttudi"

**TXOPO, txopo:** makal

**URKI, urkí:** urki.

## 12.2. LANDARAK

**ABEA :** oloa.

**AGAN BEDAR, agan bedarra:** agan belar.

**ALBAKA, albake:** albaka.

**ALFAFA, álfafe:** alfalfa; "bedarrak eraitten dires a, ba, frantzesak, sekule bedarra, eta alfafe"

**ALGARRATZ, algarratza:** Ribes uva-crispa.

**ALLURBE, allurbe:** Trigonella foenum-graecum.

**AMAR MANDAMENTTU, amar mandamenttu:** Lonicera periclymenum.

**ANGERU LORA, angeru lore:** aingeru lore.

**ARKASATZ, arkasatza:** arkasats.

**ARROTZA BERRETXIKO, arrotza berre-txiko:** Amanita caesarea.

**ASKI, aski:** azki belar.

**ASUN BEDAR, asun bedarra:** asun belar; "asun bedarra edo esaten dakona esta ori?"

**ASUN, asuné:** asun; "alkolasko fregasiño, baya asunena obe, se asunek pika itten dereles"

**ATXIKORI, atxikori:** txikori; "atxikori nasta-teakon kaferi"

**AYEN ESKER, ayen eskerra:** aihen ezker; "errosario bedarrak eta ayen eskerrak emon dosku bearra solotan"

**BALSAMU, bálsamu:** golpe belar.

**BALTZAMU, báltzamu:** golpe belar; "baltzamu eridatarako, baltzamu, eta berotu surten ta asala kendu, eta imiñi a ta eride garbi garbi itteun ak eta andittute imiñi"

**BATAN, batána:** batan.

**BATEN, baténa:** batan.

**BEDAR FRESKO, bedar frésko:** belar fresko, berdetan ebakitzen dena.

**BEDAR SIKU, bedar sikú:** belar siku.

**BEDAR, bedarrá:** belar; "kantzata nau a, beda-rra ebaten"

**BELARRIKO MIÑEN BEDAR, belarriko miñen bedarra:** Sedum album.

**BERBENA, berbéne:** Berbena officinalis.

**BERDIÑ, berdiñé:** berdin; "berdiñe ote san lekun uxenak egoten siren"

**BERRETXIKO, berretxiko:** 1.ziza orokorrean; "au tallu andi deken berretxikok danak txarrak" 2 "ba, klase asko yaten siren len, yaten siren berretxikoak, arrotza gorringoak, ongoak, gibel urdiñek, estaitt giu bere bai"

**BERRU, bérru:** berro

**BORRAJA, borráje:** borraia.

**ELORRANTZA BALTZ, elorrantza baltza:** elorri beltz.

**ELORRANTZA SURI, elorrantza suri:** elorri zuri.

**ELORRANTZA, elórrantze:** elorrantza, elorri; "len a, ba sera usate san, elorrantza edo pintxodun a, ser bat ebai itte san gero, arbuston klasera, elorrantza"

**ERRAMU, erramú:** erramu, ereinotza; "erramu ikitte san bereinketute, erramu errama bat bereinketute ikittesan, eta a errete san, a botate san surtera ta a errete san ta kandela bereinketu eukitte san, kandela bereinketu bistute san ta, batzuk oyan barrun sartu eskeron salbata dausela pentzaten deude, neure lengusin mungikok esateun se, truboi asma iñ ordureko oyan barrun sartu ber dala, buru te gusti tapaeskeron entzun es, entzun es truboya buru te gusti tapaeskeron, salbata daola pentzateun ak, talletun edoseiñ errama imintte san, baya erramue udabariñ

oten da loran, eta loran daonean, erramue bereinketute oten da, bereinketu itten da erramue paskotan, paskotan imintten da ur bereinketu ontzitten ur barrie, eta bereinketuten deu abadek, eta ordun bereinketuten dires, kandelak, ordun te kandelario egunen ta, ordun erramue esta ongo igual a, kandelario egune goixeti ixeten da ta baya, kandelak eta onek ba, bereinketute bakotxak gorde itteusen etzen, oseake gure jaune etzera gaixo bateri eroteko bere, ba altare prepara ber ixete san atxiñe, eta kandela bereinketuk ber dires alatare preparateko gure jaune an imintteko leku, kandela bereinketuk ber ixeten siren, imiñi, bistute, se ba, gure jauneas etorte san abade ta gure jaune itxitteko leku ber ixeteun konfesateko ba, gaixo, eta gure jaune itxitteko leku imintte san ba, bakotxak al deun modun, alik ondoen, kandela bi bereinketuk eukitten siren bistute, falta barik, kandela bereinketuk etzen, trumonade oten sanen bere kandela pere bistuten siren eta ori erramu errame botate san a"

**ERREUME BEDARRA**: erruma belar

**ERROMERU, erromerú**: erromeru

**ERROSARIO BEDAR, errosario bedarra**: errosario belar; "errosario bedarrak eta ayen eskerrak emon dosku bearra solotan"

**GARAGAR, garagarra**: garagar.

**GIBEL BEDAR, gibel bedarra**: Hepatica nobilis; "gibelan antzeko orre dekoles orreaittik esaten dotze orreri gibel bedarra"

**GIBEL URDIÑ, gibel urdiñé**: Rusula virescens; "ba, klase asko yaten siren len, yaten siren berretxikoak, arrotza gorringoak, ongoak, gibel urdiñek, estaitt giau bere bai

**GIÑAR, giñarra**: ginarra, kinarra; Calluna vulgaris; "giñarrea beste bat da"

**GRILLU BEDAR, grillu bedarra**: Cytisus scoparius.

**IDER BALTZ, ider baltzá**: ilar baltz; "ider baltza, lantzen batek urteten deu solotan, iderra, iderra bakixu ser dan?, ba aii antzeko a, a baño estutxuau, lusetxuau ta estutxuau ixete san seruke, garo baltza itte akona, gari arten ta olan urteteun lantzen batek."

**IESKA, ieske**: ieska.

**INDI KAÑUBERA, indí kañubere**: indi kainabe-ra; "indi kañubere esaten deutzona bat, gogorra antxe, bean daos punte bi"

**INDIGASTAÑA, indígastañe**: indi gaztaina; Aesculus hippocastanum.

**INTZURRI, intzurri**: Hedera helix.

**IÑURRI ONDOKO, iñurri ondoko**: Arum italicum.

**IRA, iré**: ira; "beste palu andi beten imintte san ira pillo bat, amarrata", "asko da gosoau urdei bere gosoau da ireas erreko"

**KALABASA BEDAR, calabasa bedarra**

**KAÑABERA, kañabere**: kainabera; "imiñi firu olan, kañabera baten puntan eta, areas koisten siren"

**KAÑUBERA, kañubere**: kainabera; "kañubera pere klase bi daus len esan doales"

**KARDU LATZ, kárdu latza**: gardu latza.

**KARDU, kárdu**: gardu.

**KARRASKILLA, karraskille**: karraskila.

**KLABELIÑA, klabelíñe**: klabelina.

**KUKU FRAKA, kuku frake**: Digitalis purpurea.

**KUKU SAGAR, kuku sagarra**: kukusagar.

**LANDARA, lándare**: landara; "landare koisteko asi erain ber dosu, ba eraitten da troso baten asi, olau sati bet eraitten da"

**LAPATZ, lapatza**: Arctium minus.

**LARRA KLABELIÑA, larra klabelíñe**: larra klabelina.

**LARROSA, larróse**: 1.larrosa. 2.larrosa kolore

**LIÑO BEDAR, liño bedarra**: liho belar.

**LIÑO, liño**: liho

**LORA, loré**: lore ; "sagarrak loran daus"

**LUKI BUSTEN, luki bustena**: luki buztan, azeri buztan; "Begoña luki bustena setako usate ixen da ba?, medisinatarako bai usate ixen da ori e, jenero askotako ori usate ixen da e"

**LUKI BUSTENA**"luki bustena or bean, itxurritti arantza, lelau ote san, oin bere ongo da or e, ori usate ixen san luki bustena medisinatarako, begoña luki bustena setako usate ixen da ba?, medisinatarako bai usate ixen da ori e, jenero askotako ori usate ixen da e"

**MALLUKI BEDAR, malluki bedar**: mauluki belar, marrubi belar.

**MAMUKIO BEDAR, mamukio bedarra**: mamukio belar; Malva sylvestris.

**MANTZANILLA, mantzanílle**: mantzanila; "mantzanille bertan kokioa, gordete san, estomagoko miñe dauneko"

**MIMEN, mímena**: mimen; "mimenasko otzare eron deude"

**MIMOSA, mimóse**: mimosa.

**MISPERRU, mísperru**: mizperru.

**ONDO, ondó** landara

**ONGO, óngo**: onddo; "ba, klase asko yaten siren len, yaten siren berretxikoak, arrotza gorringoak, ongoa, gibel urdiñek, estaitt giau bere bai"

**OREGANU, oréganu**: oregano.

**OTA, oté**: 1.ote; "ote, otek sue sera deko, tronko txikerra dales, mea dales, sue irie, beste egur lodiau da labe berotuteko ta" .2 ota, oilotokietan oiloek lo egin dezaten eukitzen den armadizoa

**OTA, oté**: 1.ote; "ote, otek sue sera deko, tronko txikerra dales, mea dales, sue irie, beste egur lodiau da labe berotuteko ta" .

**OTABAR, otábarra**: otabar.

**SALDAR BEDAR, saldar bedar**: zaldar-belar.

**SALSA BERRETXIKO, salsa berretxiko**: saltsa perretxiko.

**SAN JOSE LORA, san jose lore**: San Jose lora

**SAN JUAN LORA, san jwan lore**: San Juan lora

**SANBEDAR, sanbedarra**: zanbelar

**SAPO BEDAR, sapo bedarra**: sapo-belar.

**SAPO BERAKATZ, sapo berakatz**: sapo-berakatz.

**SAPO PORRU, sapo porru**: sapo-porru.

**SASI, sasi**: sasi; "sasi esaten dotzu guk oneri, aor bean daus"

**SASIARTE**, **sasiárte**: sasiarte; "abarka sarrakas etorri tte itxi abarka sarrak sasiarten gordeta an, ta an kanbia sapatak"

**SASILARROSA**, **sasilarrose**: sasi larrosa.

**SAUKU**, **sáuku**: sauku.

**SEKULE BEDAR**, **sekule bedarra**: sekula belar; "bedarrak eraitten diren a, ba, frantzesa, sekule bedarra, eta alfafe"

**SETA**, **séte**: ziza.

**SIE**, **sié**: ihia; "sitxuski ure daun leku edo siek"

**SUGE BEDAR**, **suge bedarrá**: suge belar

**SUGE LORA**, **suge loré**: suge belar.

**TRABA BEDAR**, **traba bedarra**: traba belar; "traba bedarra olau a, luse bat sustrai asko emoten deuna, txarra da"

**TXIKORI**, **txikóri** atxikoria.

**TXIRIBITA**, **txiribíte**: txiribita.

**TXIRRI OKARAN**, **txirri okarana**: txirri okaran; "txirri okaranak morau tires"

**TXOMIN BEDAR**, **txómin bedarra**: txomin bedar, barrabas bedar

**TXORI KARDU**, **txori kardu**: txori gardu.

**UNORE BEDARRA**: unore belar

**USTEI BEDAR**, **ustei bedarra**: Rumex sp.

**USTEI**, **ustei**: Rumex sp.

**USTURI**, **usturi**: ustura, mihura.

**YUNGU**, **yúngu**: ihia, junku; "yungu e, kañuberen antzera asten dana ta aikés sillek onetarikok yesarleku apatzak aikés intte "

**YUNGUDI**: junkudi

### 12.3. ORTUARIAK

**ARBI**, **arbí**: harbi; "arbigare da, naboa?, lorek urtetako a, urten baño lelau an eukitten deu bolatxu da arbi, nabon buru, baya ya lorek urten baño lelau orrek yan itten deittus askok orrek arbigarak"

**ASA**, **asé**: aza; "koniflora eta ase bapere olaurik es gendun imintten"

**ASELGA**, **aselge**: zerba; "oiñ yaten da geyau aselge bere bai"

**BABA**, **babé**: 1.baba; "baba denporan babe botateakon indaberi" 2.adur, larde.

**BAIÑA**, **báiñe**: leka; "baiñen antzera dator"

**BAÑA**, **báñe**: leka.

**BAÑAPALU**, **báñapalu**: bainapalu, landararen hazkundera artezteko erabiltzen diren makilak, gehienetan kainabarak.

**BERAKATZ**, **berákatza**: berakatz; "berakatzan lekuen, kinpulek ekar dittus", "siketu akaba barik brote emoten deu berakatzak"

**BERAKO BAÑA**, **berako báñe**: beherako baina; "gorako bañak eta berako bañak esaten dake"

**BERAKO INDABA**, **berako índabe**: beherako indaba; "eta gorako indabe danean, ba artok itten deu palune, arton ieten deu, eta berako danean ba, pilo pilotxu beten botate san indabea eta eltxen danean batu, artoarterik artoarte, filarik fila"

**BERDURA**, **berduré**: barazkiak; "berdure yaten dot lodittu esitteko"

**ERREMOLATXA**, **erremolátxe**: erremolatxa.

**ESKAROLA**, **eskaróle**: eskarola

**ESPINAKA**, **espináke**: espinaka.

**GARBANTZU**, **garbántzu**: garbantzu; "garban-tzu iminttesan asakas"

**GORAKO BAÑA**, **gorako báñe**: gorako bainak, gorako lekak; "gorako bañak eta berako bañak esaten dake"

**GORAKO INDABA**, **gorako índabe**: gorako indaba; "gorako indabea, gorako eta berako biek, eraiñ itten siren artoa soto andi ixete san"

**IDER**, **iderrá**: ilar; "ider baltza, lantzen batek urteten deu solotan, iderra, iderra bakixu ser dan?, ba aiñ antzeko a, a baño estutxuau, luse-txuau ta estutxuau ixete san seruke, garo baltza itte akona, gari arten ta olan urteteun lantzen batek."

**INDABA SURI**, **índaba suri**: indaba zuri.

**INDABA**, **índabe**: indaba; "baba denporan babe botateakon indaberi", "gordiñik, bere bai, gustaten dakonari bai, aitte defuntu gureri bere gustate akon, eta printzipiu a, gu txikitxuk ixen giñenen a, aittek arrotza bat eta umek katillu bet esne indaban osten"

**INYABA**, **ínyabe**: indaba; "ori normalmente erriko axe daonen, ointxe inyabak batxeko sasoiñ ixeten da ori"

**JIRASOL**, **jirasolá**: eguzkilore.

**KALABASA**, **kalábase**: kalabaza; "kalabasa aren arto arten eraittesan"

**KINPULA**, **kinpúle**: kipula; "kinpula bat pikata, gustaten daken lekun, kinpule pikata prijidu eta areas urdeyes nastea, a kinpule yate san"

**KONIFLOR**, **koniflorá**: azalore; "koniflora ta ase, imintteen leku askotan"

**LENTEJA**, **lentéje**: lenteja; "ser esangot lenteja baten antzeko tamañuko edo, asi baltza baltza, eukitten deu, eta a eraitten da"

**LETXUGA**, **letxúge**: letxuga.

**NABO**, **nábo**: harbi; "onek nabo les eraitten siren eta lapikon itteko goso e"

**PATATA**, **pátate**: patata; "patata bat botaten da, eta eraiñ, eta gatzu urtu", "afarie, ba leku betzuten porru salde ta patata saltza berden ta olan bere usaten siren, guren geuren etzen esta iños olau, etzen, ba, urdei prijidu, urdei satitxu bana edo prijidu, eta ak emon deun a, koipetan, ba kinpula bat pikata, gustaten daken lekun, kinpule pikata prijidu eta areas urdeyes nastea a kinpule yate san"

**PEREJILL**, **perejillé**: perrexil.

**PIPER LODI**, **piper lodí**: pipar lodi; "au pipar lodiñe ba, siku isten dales, ba edosein lekun imin lei"

**PIPER ONDO**, **piper ondó**: pipar ondo, pipar landara.

**PIPER TXORISERU**, **piper txoriserú**: pipar gorri, txorizotarako erabiltzen dena.

**PIPER**, **piperrá**: pipar; "senbet pipar ekar dosus?"

**PORRU**, **porrú**: porru; "negun eskendun itten bendejarik te, se neguko bendejek esteu balio, bai asak eta iru lau porru", "eta gero asten danen tamañukoa, atara, eta lurre preparata euki tte, atxurreas itten da kanaltxu, eta an kanalen imintten diren banan banan, noberak gure deun distantzie, eta atzera altza dan lurre botaten dake ganera gero



tapateko, eta porrue senbet eta luseao a, imiñiao ba, luseao urteten deu surik"

**SENAORI, senáori:** azenaori.

**TOMATE ONDO, tómate ondo:** tomate landara.

**TOMATE, tómate:** tomate; "yorrai esaten dako-na ori txikitxu, plantateko piperrak eta tomatek"

#### 12.4. FRUTUAK

**FRUTA, fruté:** fruitu; "eskues yan ba, frute edo", "bai, beste frutarik estau"

**GASTAÑA, gastáñe:** gaztain; "intxurrek, gas-tañak egositte, orrek iseten siren aparteko gausek a, oiñ a, turroya, selan oten dales, ordun turroi ainbeste esan oten, ordun bere ongo san turroi baya karu edo, estaipa ser"

**IKO PASA, iko paseé:** iko pasa.

**IKO, ikó:** iko; "ikoas, ikok emoten deun ureas bai iños entzun dot"

**INTXUR, íntxurre:** intxaur; "intxur gitxi ekar deude", "intxur arrakalak, arrakaldute intxurrek, ganeko moskole sertute, kentxeko modun ya, siketute, arrakaldute"

**KERIXA, kerixé:** geriza.

**LARANJA, laránje:** laranja.

**LIMOI, limói:** limoi.

**MADARI, madarí:** madari; "madari a, gitxi, madari tte olau gitxi dau gure aldetik eta"

**MALLUKI, mallúki:** mailuki, marrubi; "malluki asko yan dosu suk"

**MASPASA, maspáse:** mahaspasa; "mingotza da au baya eldu ondo in daittesenean, maspasa modun para daittesenean goso tire"

**MASTI, másti:** mahasti.

**MASUSTA, masústte:** masusta; "masustak bai yaten siren"

**MATZ, matzá:** mahats; "gero ya akaba siren matzak eta, esiren gobernaten eta"

**MILLIKOTA, millikoté:** melokotoi, milikota

**MUSKILL, muskillé:** muskil.

**NARANJA, naránje:** laranja.

**OKARAN PASA, okáran pase:** okaran pasa

**OKARAN, okárana:** okarana.

**PARRA, parré:** mahats parra; "parre ikitteun"

**PARRAPE, párrape:** parrape.

**SAGAR, sagarrá:1** sagarrondo; "sagarrak loran daus" **2** sagar; "nik sagarrak erosten doas"

**SAN JUAN MADARI, san jwan madari:** San Juan madari

**SAN JUAN SAGAR, san jwan sagarra:** San Juan sagar

**SAN PEDRO SAGAR, san pedro sagarra:** san pedro sagar, sagar mota bat.

**SANTIAGO MADARI, santjago madari:** santiago madari.

**SIDERI MADARI, sideri madari:** madari mota bat

**TXARBA, txarbe** sagar mota bat; "txarbe bai, ba mendabako sagar bat, txikitxu"

**URRETX, urretxá:1** ur, urretx. **2** rusula cyanoxantha.

**URRUTX, urrutxé:** ur, urretx.

**URTE BETE, urte beté:** sagar mota bat.

#### 12.5. ARTOA

**ARTABURU, artaburú:** artaburu. "artaburuk itten dires, onenak onenak gordeten dires asittarako, itten dire garandu te imiñi, mayetzan sortziñ asitte, esateun gure aitte defuntuk dala sasoi ona arto eraitteko, setienbre da arto batxeko denpore setienbre, segun goixetitxu eraintte badau, belutxu eraintte badau, belutxuau eraintte badau belutxuau otubre bere igual

**ARTAGARO, artagaró:** artagarau.

**ARTASURITTE, artasuritte:** artazuritze.

**ARTO BITTARTE, arto bittarte:** arto bitarte; "bostorrotza, bostorrotzaas ba, arto bittartek, erdiko kanalak itten siren askatu, gero atxurreas a, bostorrotzaas, bostorrotza tekona a, ser bat aste san, puntan akabaten daona"

**ARTO BIXER, arto bixerrá:** arto bizar.

**ARTO ESE, arto esé:** arto heze, labetik pasabakoa.

**ARTO IER, arto ierra:** arto iger, labetik pasatukoa.

**ARTO KAXA, arto kaxé:** arto kaxa.

**ARTO LUPU, arto lupú:** artalupu.

**ARTO ORE, arto oré:** arto ore.

**ARTO SOLO, arto soló:** artoarte, arto solo.

**ARTO URUN, arto uruné:** arto irin

**ARTO, artó:1** arto; "setienbre da arto batxeko denpore setienbre, segun goixetitxu eraintte badau, belutxu eraintte badau, belutxuau eraintte badau belutxuau otubre bere igual", "Lelau artori urteten tzo puntan lorek, garbe esaten dako garbe kendu, guk geyenen garbe kentxen geuntzen, garben autze estala ona edo sarri esate san, garbe kendu, eta gero arto ya ba, buru ointxe dau ondo ya bixarrak urtenta, bixarrak kanbiateen kolore edo, ordun, txole iñ, txole iñ ordun, burun kontrako seretik, puntatik ebai, eta txolak iñ, eta gero eltxen danean artaburu batu, guk olan asau gure solok iki gendusen Kimeretan iki gendusen solo bi, eta andi itten gendun ba, artaburu te gusti eperditti ebaitte ekarri gurdiñ, eta bota atzes gurdie eta kendu artaburu, kendu artaburu pillo batera eta tronko bestera, leleko parajekoa kendu, kendu artaburue eta saranak betatu te etzera ieron, ta gero labasu, eta gero tamañu koxu ber, labasuri tamañu koxu ber edo lar in dire edo gitxi in dires edo, labe gitxi berotu da edo lar berotu da, baya ya orretarako sertute, koxute ikitteen a, sera, gero garandu a, asto esateakon kaja bat, sulokas, eta masuto andi betzuk, an lotxen diren burutxak batxeko, ori garbittu itte san autze eukitteen orrek eta garbittu eta errotara, kaja bat ikitteen gurean, imiñe esaten dakona eta lau ataringo anege, eta errotarik kobrateen gero ba, anegena lau kilo edo, baya errotari beti egote san kejas errotek yaten deule sera, apur bet eta ba, lau kilon usena bai baya ba, berari lau kilo estakosela lotxen, eratzi esaten da leleko, leleko bedarra abiaten dakonen, eratzi, bedarra eratzi ganeti ganeti ganeti eta gero ya apur bet andiao itten danean karga lurreas, orreri esate akon yorratu, lurreas karga, mayetzan eraitten dires artok eta batu a, lelengo labasuk a, ba, setienbren akaburantz itten dires, gorako indabea, gorako eta

berako biek, erañ itten siren artoa soto andi ixete san e, ainbet bider in dus sotok atxur sabalaas, eta gorako indabe danean, ba artok itten deu palune, arton ieten deu, eta berako danean ba, pilo pilotxu beten botate san indabea eta eltxen danean batu, artoarterik artoarte, filarik fila, gorako bañak eta berako bañak esaten dake, gorako bañari palu imin ber dake, eta berakoak gitxiau emoten deu, baya estako imin ber palurik, lau sotok alkarreas junta es, se kanporantza adi es baya apur bet alkarreas lau soto juntateko modun goyen amarrata, ori ixengo san berak esan gure ixene edo, eta artoarten eraitten gendun gu pere banaka bat, artoarten eraitten gendun banaka bat, lurre bere guk gitxi eukitten gendun ba, aittitte ta amoma bixi siren denporan se, etzealden erdi baño eseren ibilli aittek eta amak, beste erdie aittittek eta amomak ibiltean, kalabasa aren arto arden eraittesan, ba eraitte san baya eraitte san salle, arbi batza edo esateutzen bitxo bat itteakon nabori, eta esin koxu ixen da naborik, itxi ieutzen jentek eraitteri, ostantzen nabori bere orri kentxen dako lelau, barrin formaten dako orri kendueskeron barri itten dako a, arik eta buru iñ arden, landare koisteko asi erain ber dosu, ba eraitten da troso baten asi, olau sati bet eraitten da, itxi itten dako a, silduten, lurren, silduten eta urteten dotzo palu betek eta palun puntun urteten dotzo borla batek eta an itten dako asi, kinpuleri bere bai, berakatzari bere bai, berakatzari es, berakatzari estotzo urtetan serak, berakatzari ba, siketu itten da, siketu akaba barik brote emoten deu berakatzak, sakon sakon sartu barik itxi ber da ori lurren, berakatzari iminkeran imintten da alau tamañutxuten, olan, punta gora adi deule, fila bat fila bi, noberak gure deun beste, eta gero asten danen tamañukoa, atara, eta lurre preparata euki tte, atxurreas itten da kanaltxu, eta an kanalen imintten diren banan banan, noberak gure deun distantzie, eta atzera altza dan lurre botaten dake ganera gero tapateko, eta porru senbet eta luseao a, imiñiao ba, luseao urteten deu surik, kinpulek esteko ori in bearrik, kinpule buru baño estales ta asaltxu lotu ber deu kinpulek, piperrari asi kentxen dako, barrun dekon asi, tomateri bere bai, armario ganen ta imintten gendun atxiñe, saguk a, koxu sedien a, au piper lodiñe ba, siku isten dales, ba edosein lekun imin lei baya tomatena, ba tomateri atara ber dako a, beran ure tartetik, atara ber dakos asik, tomatek barrun ure deko, eta an uren arteti asik aparta ber diren, eta a busti busti oten da, eta en jeneral ol baten ganen edo imiñi, eta an siketu lelau ure bota erañ, gero imintteko armario ganen edo a, ber dan modun siketako"

**ARTOARTE, artoarte:** artoarte, arto solo; "eta gorako indabe danean, ba artok itten deu palune, arton ieten deu, eta berako danean ba, pilo pilotxu beten botate san indabea eta eltxen danean batu, artoarterik artoarte, filarik fila"

**ARTOTZA, artótze:** artoarte, arto solo.

**ASTO, astó:** artoa garanduteko kaxa moduko bat. "garandute egoten siren, kaja batzuk, olau kaja batzuk, eskiñak artute, eta erdin sulok, eta ara botate san ta gero masu betzukes an yote san, eta sulotati

bera eskapateun garok, estosu iños ikusi?, sulok eukesan laratroas iñeko sulok a, serak, oseake burutxea, burutxe gitxi pasateko moduko sulo, sulok bastante andik, maya bate lau armadisu bet eskiñak artute, suk estekosu orren, arratzen orren memoririk?, ta ara bota eta gero masu betzuk egoten siren yoteko, masu kuadrado olan, sabal sabalak, eta masukes yo ta an soltateun, sera ta garok, garo yote san bera ta burutxe lotxe san bertan

**BURUTXE, burutxé :** burutxa; "garo yote san bera ta burutxe lotxe san bertan"

**GARA, garé:** gara.

**GARBA, garbé:** garba; "guk geyenen garbe ken-txen geuntzen"

**LASTO ORRI, lastó orri:** lasto orri.

**LASTO TRONGO, lasto trongo:** lasto enbor.

**LASTO, lastó:** lasto.

**SAPA, sapé:** 1.sapa, kapas; "gure alboko gixon sarrak ba, matzana, matz asalakas itteun sigarro ta sapeas, garra puntan segidun sigarri". 2 txima.

**TRONGO, tróngo:** 1.artoan enbor. 2.

**TXOLA, txóle:** 1 artoaren txola, garbaren ostekoa; "eta txolak iñ, eta gero eltxen danean artaburu batu"

## 12.6. GARIA

**BIRSAI, birsaye:** birzahi; "gari io itte san ganaduntzeko, ganaduri a, osabak emoteko, oin saye ta birsaye ta orrek gausak a, lekuen ba, saldu bere ingoeden arenek, gero pertzekusiño itzela eukieun garik, txorikes, eta jentek itxi eutzen eraitteri gari"

**BIXAR GARI, bixar gari:** bixar gari.

**GALAUTZ, galautze:** galauts; "galautze, gari-garauk soltaten deun autze da ori"

**GALTZU TXOLA, galtzu txole:** galtzu txola.

**GALTZU, galtzú:** galtzu.

**GARAU, garáu:** 1 garau, ale, bihi

**GARAU, garáu:** 1 garau, ale, bihi 2 euri garau; "freskure in tte osten bere bai itxitten dotzo garau bedarrari" 3 tutik, piperrik, ezer; "guk estu itten utzik garauri pes, urte dustiñ utz baperes"

**GARI BIXER, gari bixerra:** gari bixar.

**GARI META, gari mete:** gari meta.

**GARI SOLO, gari solo:** gari solo; "txoriagola imiñi, gari solon, eta txoriagolan artatxorik abi intte bertan"

**GARI TXOLA, gari txole:** gari txola.

**GARI URUN, garí urune:** gari irin.

**GARI YOTE, gari yote:** gari jote; "gari yotetan bere a, ba, bear fuerte dala ta"

**GARI, garí:** 1 gari; "mayetza edo olan ixengo san, ya gari a, berde daonen", "eskus eraitten dakona bai, batek erañ, eta bestek a, kajoi bet eukin alan goyen, guk euki gendun makiñe, ori makiñe geuk euki gendun, barrio gustiri garbittuteutzen gure aitte defuntuk, garik garbi-ttuteutzesan", "Lurre makiñetu, eta gero areas edo apurtu, itten da, gero satzittu, eta gero itten diren, ba errama batzuk artxen diren, ta erramakas itten da, ba file solon, eta a bittartea, oseake erramakas, errama fila bies, in filea, eta emen bittarten eraitte san, ta gero kendu eraitte daona, ta urreko beste fila bat artu, nondi eraintte daon

ukusteko, ostantzen a gari esta ukusten, estaldu itten da lurrarten ta, ta imintten siren errama batzuk sartute, sartutesan olan distantzi alkarreanik artes eroteko sera, areas pasa ta gero, ure korridu deñ edo, itten siren a, exabarra bat, exeas, exe bakixu ser dan?, exea ba, alau ser bat, instrumentu bet, aste agarreteko, asta bateas, ta ganaduk a, ganaduk eroteen ta ak itteun barre, ak punttek barra bat, gari, udagoyenen eraitten da, baya estaipa se illetan, gabon aurretik

- *Eta eldu?*

eldu ba, junion akabu ingerun edo, julion iste san a, gari yote ta, emen akabuko urtetan a, makiña batzuk ibil siren, arteko denporatan ba, txolak yoten siren a, imiñi arri bet, arri bet imiñi alderdi beteti altzadeas, eta an dale, yo an, eta gero ba, gari garbitteko makiña batzuk egon siren, eta andi pasa gero, garigaro garbittuteko

- *Eta eraiñ?*

eskus eraitten dakona bai, batek eraiñ, eta bestek a, kajoi bet euken alan goyen, guk euki gendun makiñe, ori makiñe geuk euki gendun, barrio gustiri garbittuteutzen gure aitte defuntuk, garik garbittuteutesan, kajoi andi bet ikieun, eta ara kajoire bota lantzen saku bet, bat makiñeri eraitten, eta kajoi tapatxu bet ikieun, eta beste bat ba, tape aputxu bet altzata, an gari botaten megidea gardu sedeitten a, ta atzen euken parrilla bat, ta atzeko alderdire urteteun garik , bastante garbi urteteun e", "Eta gero itte san, ba garin bereinkesiño esate san, etorten siren, etzerik etze etorten siren abadek, mayetza edo olan ixengo san, ya gari a, berde daonen etorten siren, etzerik etze etorte san abade sakristauas eta ba, bereinketuten, garin bereinkesiño ixete san a, seoser emote san a, ba, gari io itte san ganaduntzeko, ganaduri a, osabak emoteko, oin saye ta birsaye ta orrek gausak a, lekuen ba, saldu bere ingoeduen arenek, gero pertzekusiño itzela eukieun garik, txorikes, eta jentek itxi eutzen eraitteri gari"

**GARIARRI, gariarri:** garia jotzeko harri.

**GARIARTE, gariarte:** garisolo; "gariarte solo da"

**GARIBURU, gariburu:** galburu; "gariburu, bixerdune, klase bi daus garik, bata da ori urteteotzona beste ba tau urtete estotzona"

**GARIGARO, garigaro:** gari garau; "yo an, eta gero ba, gari garbitteko makiña batzuk egon siren, eta andi pasa gero, garigaro garbittuteko"

**GARITZE, garitze:** garitza

**GARO, garó:1.garau;** "garo yote san bera ta burutxe lotxe san bertan"

**GARO, garó:1.garau;** "garo yote san bera ta burutxe lotxe san bertan" 2 ihintza. 3 azalaren garau

**KOSETXA, kosétxe :** uzta.

**META NAUSI, meta nausi:** meta nagusi; "selan esateaken gari a, selan geittuteaken a, metak andik, txikerrak, eta gero andik, nausi tte txikerra itten siren"

**META, méte:** meta; "selan esateaken gari a, selan geittuteaken a, metak andik, txikerrak, eta gero andik, nausi tte txikerra itten siren", "tiok eta bai itteesan, orrek bai itteesan baya guk geuk geuren, nire denporan esan itten metarik"

**SAI, sayé:1.zahi;** "gari io itte san ganaduntzeko, ganaduri a, osabak emoteko, oin saye ta birsaye ta orrek gausak a, lekuen ba, saldu bere ingoeduen arenek, gero pertzekusiño itzela eukieun garik, txorikes, eta jentek itxi eutzen

**TXOLA, txóle:** gari txola, gari txorta; "ogei bet txolaas edo ogetamarreas edo itten siren", "emen akabuko urtetan a, makiña batzuk ibil siren, arteko denporatan ba, txolak yoten siren a, imiñi arri bet, arri bet imiñi alderdi beteti altzadeas, eta an dale"

## 12.7. LANDAREEN ATALAK

**APEA, apéa:** apea.

**ARANTZA, arantzé:** arantza

**ARBIGARA, arbigare:** harbigara; "arbigare da, naboa?, lorek urtetako a, urten baño lelau an eukitten deu bolatxu da arbi, nabon buru, baya ya lorek urten baño lelau orrek yan itten deittus askok orrek arbigarak"

**ASA TRONKO, asa tronko:** aza trontxela.

**ASAL:** arbolen azal.

**ASTA:** fruituen asta.

**ASTILLA: ezpala**

**ASTILLA astille:** ezpala

**AYEN, ayena:** aihen.

**BERAKAS BURU, berákas buru:** berakatz buru.

**BERDAMIÑ, berdamiñe:** landareek eukitzen duten berdearen mingostasuna.

**BIDUR, bidurre:** bidur, esto egiteko adar eta landare gazteen enborrak, baita egur txolak lotzeko adarra ere.

**BROTE, bróte:** erne; "berakatzari estotzo urte-tan serak, berakatz ba, siketu itten da, siketu akaba barik brote emoten deu berakatzak"

**EGUR, egurré:** egur; "gurdi bete egur ekar dere negureko", "egurre in ba, in ba bason kasu beterrako, egur andi iñ, gero txikertu, etzen, egurre itten yon dires, eta egurre ekarte san basoti gurdien satik andik errama andik, txolak itten siren meakas, meakas txolak itten siren"

**ERBIGARA, erbigare:** harbigara; "erbigara esaten deutze, punte bigun bigun daola kendu"

**ERNEKATZ, ernekatza:** pataten gara, zil, ernekaitz.

**ERRAMA, erramé:** abar, adar, errama; "erra-ma bat iminte san talletun, talle bode selan daon iste san sendalle, talle botate selan akaba dan"

**ERREPOLLO, errepollo:** buru.

**ERRETXIÑE, erretxiñe:** erretxina ; "piñu te onek ixengo dire txarrak igual, piñuk a, sera dekoles, erretxiñe edo"

**ESKUR, eskurré:** ezkur; "amen aretxan eskurak gastek diren denporakok"

**FRANTZESA, frantzesa:** "frantzesa udabarriñ ebate san, eraiñ estaitt nos itten san, urte tire frantzesarik estala eraitten a, frantzesa, kendu eta arto eraiñ itte san"

**GARRI, garrí.** arbolaren enborra

**GARRI, garrí:1 gerri 2 arbolaren enborra**

**IDER GARO, ider garó:** ilar garau.

**KIMA, kimé:** kima  
**KIRIKIO, kirikio:** gaztainen kanpoko oskol.  
**MASMORDA, másmorde:** mahasmorda  
**MATZASAL, matzasala:** mahatsazal; "matza-sala ba, siku lotxen da denporadatan a, tronkon bertan"  
**MENDU, mendú:** mendu; "mendu da imintten dakona"  
**MORDA, mórde:** morda.  
**MORKOL, morkola:** oskol.  
**MOSKOLA, moskole:** oskol; "intxur arrakalak, arrakaldute intxurrek, ganeko moskole sertute, kentxeko modun ya, siketute, arrakaldute"  
**MUKUR, mukurré:** mukur; "sue itteko tronkori esaten geuntzen mukurre"  
**ORBEL, orbela:** orbel  
**ORRI, orrí:** orri; "orretariko eskutxu bete orri, orri nei egurre siketu te egosi, ta edan gero, egun bi barru edo iru barru bajata dao tentziño"  
**PALU, pálu:** makil; "palues yo deu", "itxi itten dako a, silduten, lurren, silduten eta urteten dotzo palu betek eta palun puntun urteten dotzo borla batek eta an itten dako asi"  
**PINTXO, píntxo:** erbatz, arantza; "píntxo moduko tekes orrek"  
**PIÑU ARTABURU, piñu artaburú:** pinaburu. "piñu artaburuk batu ber dires"  
**PIÑU ERRAMA, piñu erramé:** pinu abar.  
**PIÑUASI, piñuasí:** pinuazi.  
**PODA: 1 podá:** inausi; "abaro, bai, baso bateri esate akon abaro a, podata ba baju baju a, podata, arbolak, brotek baju daosenen abaro". **2 póde:** inausketa  
**SERUKA, seruké:** zeruka, leka  
**SOSPEL, sospela:** zozpal.  
**SOTZ, sotzá:** zotz.  
**SUSTRAI, sústrai:** sustrai; "traba bedarra olau a, luse bat sustrai asko emoten deuna, txarra da"  
**SUSTROI, sústro:** sustrai.  
**TRONGO, tróngo:** enbor; "atxikori baya, errama bate lao trongo da"  
**TRONKO, trónko:** enbor; "matzasala ba, siku lotxen da denporadatan a, tronkon bertan"  
**TRONTXEL, trontxela:** trontxel, aza eta letxugen trontxo; "trontxela asa sati bet, asa trontxela tronko ta asorri"  
**TRONTXO, tróntxo:** trontxel.  
**TXIRLORA, txirlóre:** txirlora.  
**TXORTA, txórte:** txorta.

## 13. NEKAZARITZA

Behar tradizionalari deutson gai hau ondoko azpi-gaiok osatua da: lurra lantzeko tresnak, gurdia, gainerako tresnak eta lanak, neurriak eta ogibideak.

### 13.1. LURRA LANTZEKO TRESNAK

**ARE, aré:** are; "lurre makiñetu, eta gero areas edo apurtu, itten da, gero satzittu", "Layetu itten da leleko lurre, eta gero areas preparaten da, austen da dana,

areas ta estoas, lur satik andik badaus esto pasaten da, seatuteko, ariñau itteko, ara bota, eta gero tapa, tapa atxurrekas itte san, exeas bere tapateuden batzuk baya atxurrekas konponidua lotxen dala tapata"

**ARE ESKU, are esku:** areak daukan girtena.

**ARE SUBILL, are subille:** area subil.

**ASTA:** arearen eskutailea

**BOSTORROTZ, bostórrotza:** bostortz; "bostorrotzaas ba, arto bittartek, erdiko kanalak itten siren askatu"

**BOSTORTZ, bóstortza:** bostortz; "esetu dot nik arto yorratuteko bostortzaas ta bei beteas, bustertu busterrri beteas, bakarrean ta"

**EDE, edé:** hede; "idiñ ederi emoten dotzesu te lotxen dire ederto"

**ESTO, estó:** esto; mokilak hausteko adar trentzatuz egiten den narra; "esto pasate san baya, an mokille andi badau edo sikuten ba, ebai bada layetue areas, ba mokillek andik lotxen dires"

**EXA, exé:** exa; "ariñau itteko, ara bota, eta gero tapa, tapa atxurrekas itte san, exeas bere tapateuden batzuk baya atxurrekas konponidua lotxen dala tapata"

**FRANTZI EXA, frantzi exe:** fantzi exe

**KAKARRALDO, kakárraldo:** karramarro, lurra lantzeko; "erraturak, solotan itten siren, bedarrak edo olan sakeleri batu, eta pillo iñ, ta ganeti bota lurre, ta siketuten direnen ta sue emon gero, eratzi solo igual, ganeko bedarra, se atxiñe esan egoten a, seas eratziri pere, gero urteuden kakarraldok eta orrek trapaserik, eratzi tte siketuten danean batu pillo batera, lurre bota ganera, lurreas tapa ta, sue emon, ta sue, keatan, keatan, erreten da barru gusti, bedarrak gitxiau urten deiñ esate san ori itten dala"

**KARRAMARRU, karramárru:** lurra lantzeko karramarro; "karramarru, gure txiker denporan urteun orrek"

**KARRETILLA, karretille:** karretila

**NARRA, narré:** narra.

**SUBILL, subille:** subil.

**TRILLADORA, trilladóre:** trilatzeako makina.

**TRILLU, trillu** trilatzeako makina.

### 13.2. GURDIA

**AKULU, akúlu:** akulu; "akulu itxixu or ganaas miñ in barik"

**ALBO OL, albo ola:** gurdiaren albotan jartzen diren olak.

**ALDAMEN, aldamena:** aldamen, gurdiaren kaxan albotan dagozen egur luzeak.

**ASPIOL, aspiola:** azpiol.

**ASTO:** Gurdian aldamenaren azpian ardatzari eusteko dagoen zatia.

**BESAKA** errimuka; buztarrian idi batek bestearen gainera egiten duenean; "olan tiretu itten badeu tireka eta olan lepo botaten badotze alkarreri besaka"

**BUSTERRI BAKAR, busterrri bakarra:** buztarri bakar; "esetu dot nik arto yorratuteko bostortzaas ta bei beteas, bustertu busterrri beteas, bakarrean ta"

**BUSTERRI, bústerri:** buztarri; "esetu dot nik arto yorratuteko bostortzaas ta bei beteas, bustertu busterri beteas, bakarrean ta"

**ERRAILL, erraille:** erraila; gurdian aldamen batetik bestera dagozen baranda luzea; "seoseri esate akon erraille, seri seri enei esan baya"

**ERRUEDA, erruedé:** txirringa.

**FRONTERA, frontére:** frontera; idiak buzter-tzeko kopetan ipintzen zaien almuatxo.

**GALGA, galgé:** galga, balazta; "gero urteuden gurdik galge eiki euden"

**GAN, gana:** gan, akuluaren iltze; "akulu itxixu or ganaas miñ in barik"

**IRESPATA, irespate:** gurdiaaren aurrekaldean tente ipintzen den makila, ezpata.

**IRISPATA, irispate.:** gurdiaaren aurrekaldean tente ipintzen den makila, ezpata.

**KAMA, kamé:** gurdikama.

**KARRO, kárro:** karro; zaldi eta astoakaz erabiltzen dena; "Katiketiki etorte san ara Butroire bat, karroas"

**KARTOL, kartóla:** kartola, gurtola.

**UBELA, ubelá:** ubal

### 13.3. GAINERAKO TRESNAK ETA LANAK

**AGIÑ:** erremintei ahoan egiten zaizkien akatzak.

**ALTZADA, altzadé:** altxada; "emen akabuko urtetan a, makiña batzuk ibil siren, arteko denporatan ba, txolak yoten siren a, imiñi arri bet, arri bet imiñi alderdi beteti altzadeas, eta an dale"

**ALTZAGARRI, altzagarrí:** altzagarri; "altza-garri bet, bai umedadeaittik"

**ARIOTZ, ariotza:** ariotz; "aik ebateko erotesan ariotza"

**ARRATXUR, arratxurre:** arratxur, larratxur; "atxurrek an bason usaten dires, ba, normalak es, arratxurre esateakon"

**ARTZA, artze:** artza, indabak eta galbaratzeko sumetzazko tresna.

**ASKORA askóre:** aizkora.

**ASTA, asté:** 1 girten; "ori asta barik isten da, beorrek eukitten deu agarrateko, igual sein matxe-te baten antzeko, da ori", "bostorrotza, bosto-rrotzaas ba, arto bittartek, erdiko kanalak itten siren askatu, gero atxurreas a, bostorrotzaas, bostorrotza tekona a, ser bat aste san, puntan akabaten daona"

**ASTOTZARA, astotzare:** astotzara.

**ATXUR SABAL, atxur sabala:** haitzur zabal; "ainbet bider in dus sotok atxur sabalaas"

**ATXUR, atxurré:** haitzur; "atxurrek an bason usaten dires, ba, normalak es, arratxurre esateakon", "bostorrotza, bostorrotzaas ba, arto bittartek, erdiko kanalak itten siren askatu, gero atxurreas a, bostorrotzaas, bostorrotza tekona a, ser bat aste san, puntan akabaten daona"

**BARANDA, barandé:** makil edo ohol luzea; "baranda bat eraitteko sueri, eta gero egurreko pala bat asta luse luseas"

**BENDEJA, bendéje:** bendeja; "negun eskendun itten bendejarik te, se neguko bendejek esteu balio, bai asak eta iru lau porru"

**ENTRESAKA, entresáke:** mehazketa.

**ERRATURA, errature:** erratura, erretura; "erraturak, solotan itten siren, bedarrak edo olan sakeleri batu, eta pillo iñ, ta ganeti bota lurre, ta siketuten direnen ta sue emon gero, eratzi solo igual, ganeko bedarra, se atxiñe esan egoten a, seas eratziri pere, gero urteuden kakarraldoketa orrek trapaserik, eratzi tte siketuten danean batu pillo batera, lurre bota ganera, lurreas tapa ta, sue emon, ta sue, keatan, keatan, erreten da barru gusti, bedarrak gitxiau urten deñ esate san ori itten dala"

**ERREMESA, erremése:** txanda, beharra; "se-lan bixi san jente atxiñe e, erremesa txarra de-kola aittek a, sototuten aik bearren egune sartute osten,aittittek lagundu eutzen apur bet aurki"

**ERREMINTTA, erremintte:** erreminta; "gori-ttu, erreminttak eta surten gorittu arten euki seosetarako"

**ESKU TIRO:** eraiteko era bat da; haziak eskuz botatzen direnean, hain zuzen.

**ESKUBERE, eskúbere** eskuare; "egurrekok usako siren, nik estot esetu, nik egurreko usa dot ba, bedarra batxeko, selan esaten dako?, eskubere", "bueltakean sabaldu, gero batu, pillotara batu, eskubereas, gero gurdí karga, etzera ekarri, eta ara aurreko alderdire eron gurdí, kargan imiñi tte lastegire altza"

**EXABARRA, exábarre:** exa erabilia egiten den ildo; "exabarrak, patata eraitteko ta itten siren, patata eraitteko, eta arto eraitteko bere bai, gu pere in dus iños, ba, sotok itteko baño fasiltxuau itten da ta, iños in du exabarrara erañ a, arto bere, se sotok itten a, tarea txarrak oten dires a, olan solo andik itteko jente modurik batu esen, jente gitxik itteko"

**FARDO, fardo:** fardo.

**FILA, file:** ilada, lerro; "ba errama batzuk artxen dires, ta erramakas itten da, ba file solon"

**GALTZU SERRA, galtzú serre:** gortako igitaia galtzua ebakitzeko, gehienetan bi erabiltzen dira

**GIRTEN, girtena:** girten; "girtena bai, askorena ta yorraiñe girtena da"

**IRURKE, irurke:** urkulu; "lelau labasuk itten sirenean ote ta sasi tte orrek labara sartzeko, egurreas itte san ori irurke"

**ITTAURREKO, ittaurreko:** itaurreko

**ITTAURREN:** itaurrean.

**KAKO, kakó:** 1 kako, lurra lantzeko; "kako olan, lau ortzako olan a, egur be teko astea, olan okertute lau olan bera adi"

**KANAL, kanalá:** ubide; "eta gero asten danen tamañukoa, atara, eta lurre preparata euki tte, atxurreas itten da kanaltxu, eta an kanalen imintten dires banan banan, noberak gure deun distantzie"

**KODAÑA, kodáñe:** kodaina.

**LABRANTZA, labrántze:** nekazaritza

**LANKATE, lankate:** exa eta aretan erabiltzen den kate.

**LAPOTZARA, lápotzare:** lepo otzara; "lapo-tzare aori kaje balitze lau otzara bat, aste erdi erditti daule esku sartute eroteko, lapotzare"

**LAYA, layé:** laia; "solok osok itten siren layakas", "layetako makiñe ixen ber da orretarako, layatan neu

pere in dot, aitte ta aman erdiñ, txikerretan, soi sati bet ain bien erdiñ a, buelta, sagarrak sagarrak landaraas daosen lekun itte san layakas bueno ostantzen bere bai arik eta makiñak urten arten, solok osok itten siren layakas, guk geuk estus in solok osok layakas iños, eskiñak edo bai, makiñak artxeko eskiñak edo bai, imiñi buelta ta gero makiñek esteules koisten eskiña eskiñaraño ondo ordukok oin daosenak bai baya eskiñak layakas, eskiñatxuk artxen siren eta landarak eta olan daosen lekuen itte san, patate edo eraitteko ba labrate san layakas dana, itten gendun guk, laya bies bakotxak, bai bies, laya bies esku banatan, eraitteko asik balde baten usaten gendun guk, lelau prepara ber isten da soloa ta gero bota olan"

**LERRO, lerró:** lerro; "lerrok itxi, ebai tte lerrok itxi an, bata besten antzen a, eta gero ganeti siketen danen buelte emon"

**LURKAKO, lurkako:** lur kako.

**MAKIÑA:** lurra lantzeko makina

**MASAGABI, masagabi:** oletako mailu handia.

**MASU, másu:** mazu; "Mokillek yo masues, ordun esegolako, esto pasate san ordun bere, esto pasate san baya, an mokille andi badau edo sikuten ba, ebai bada layetue areas, ba mokillek andik lotxen dires espada tenplen lurre egon, mokillek andik lotxen dires eta esto bere yantzan dabill aiñ andin ganen eta, eta leleko andienak yo, esto pasateko eta olan gausa gitxi daonen ba, masues yo ta aurrera"

**MASUTO, masúto:** mazuto; "gero garandu a, asto esateakon kaja bat, sulokas, eta masuto andi betzuk"

**MATXETA, matxéte:** matxeta; "ori asta barik isten da, beorrek eukitten deu agarrateko, igual sein matxete baten antzeko, da ori"

**MOKILL, mokillé:** mokil; "esto pasate san baya, an mokille andi badau edo sikuten ba, ebai bada layetue areas, ba mokillek andik lotxen dires"

**ORTZ, ortzá:** hortz; "sotzarde, orrek bost ortz eukitteittu aurki"

**ORTZA, ortzé:** hortz; "kako olan, lau ortzako olan a, egur be teko astea, olan okertute lau olan bera adi"

**OTZARA SABAL, otzara sabalá:** otzara zabal.

**OTZARA, otzáre:** otzara

**OTZARADA, otzarade** otzara multzo.

**PERIKITTO, perikitto** : otzara txikar.

**PIKADOR, pikadorá:** trangabel; egurra txikar-tzeko erabiltzen den mukurra.

**PIKAMALLU, pikamallu:** pika mailu: kodaina pikatzeko erabiltzen diren mailu eta junguda; "pikamallu esaten dakona isten da diferente"

**PODA, póde:** inausketa

**PORRA, porré:** porra, mailu modukoa baino handiagoa.

**SAKU, sakú:** zaku; "erropak imintte oten siren balden, eta ori otzare ganen imintte akon, eta otzareri imintteakon saku bet"

**SAKUTO, sakúto:** zakuto.

**SARAN, saraná:** zaran; "leleko parajekoa kendu kendu artaburu eta saranak betatu te etzera ieron"

**SARDA, sardé:** sarda.

**SASKAKO, saskako:** saskako, satsa ateratzeko erabiltzen den kakoa

**SEMILLERU, semilléru:** mintegi.

**SEMINTTERA, seminttére:** mintegi.

**SESTO, sésto:** zaran.

**SIMINTTERA, siminttére:** mintegi.

**SOI, soyé:** zoi; "layatan neu pere in dot, aitte ta aman erdiñ, txikerretan, soi sati bet ain bien erdiñ a"

**SORROSTARRI, sorróstarri:** zorroztarri.

**SOTO, sóto:** soto, txorko; "sotok itteko baño fasiltxuau itten da"

**SOTZARDA, sótzarde:** bost hortzeko sarda; "sotzarde, orrek bost ortz eukitteittu aurki"

**SUMETZ, sumetzá:** zumitz

**SURRUN, surruné:** 1.zurrun.

**TRIGERU, triggeru:** bahea, galbahe.

**TRONTZA, trontzé:** trontzazerra.

**TRONTZADOR, trontzadorá:** trontzazerra.

**TXORIAGOLA, txoriagole:** txorijagola, txoriizugarri; "txoriagola imiñi, gari solon, eta txoriagolan artatxorik abi intte bertan"

**UREKORA, úrekora:** urak gora; iretargiaren ilgora; "botateko bai a, urekora ta urepera esateuden"

**UREPERA, úrepera:** urak behera, iretargiaren ilbehera; "botateko bai a, urekora ta urepera esateuden "

**URKULU, urkúlu:** urkulu

**YORRAI, yórrai:** jorra; "yorra esaten dakona ori txikitxu, plantateko piperrak eta tomatek "

**YUNGEDA, yungede:** junguda, kodaina pikatzeko lurrean sartzen dena.

**YUNGUDE, yungude:** junguda; "yungude esateakon orreri, lurren sartzen sana "

#### 13.4. NEURRIAK

**ANEGA, anége:** anega; "kaja bat ikitteen gurean, imiñe esaten dakona eta lau atarango anega"

**ARRA, arré** : arra; "arrarik arrara edo olan dekos a, kordeltxu betzuk"

**ARROA, arróa** arropa

**ASUNBRE ERDI, asúnbre erdi:** azunbre erdi; "eta arrastegin bearra itxi tte osten, sototuteko dos kimeratako soloak asunbre erdi ardaun artu, erremesa txarra daola ta, bederatzi perra pagata, aik bederatzi perrak berari emoutzen pene gero osten", "asunbre erdiko tankeas ure bota txarri tte beste bat talleas arraskaten, asunbre erdiko tankek oiñ orre pere estaus"

**ASUNBRE, asúnbre:** azunbre.

**BARBARIDADE, barbaridadé:** astakeria, eta kantidade alorrean asko dela adierazteko ere bai.

**DISTANTZI, distántzi:** tarte, bitarte; "itxi-tteuden a ba, distantzi ber deunaas", "eta gero asten danen tamañukoa, atara, eta lurre preparata euki tte, atxurreas itten da kanaltxu, eta an kanalen imintten dires banan banan, noberak gure deun distantzie, eta atzera altza dan lurre botaten dake ganera gero tapateko, eta porrue senbet eta luseao a, imiñiao ba, luseao urteten deu surik"

**DOSENA ERDI, dosena erdí:** dozena erdi; "ba-ya guk dosena erdi anega, eta gero bota sorro bat, eta kaderakas ingetu, bota beste bat eta ingetu", "dosena erdi paper baño giau kanbia eusen"

**DOSENA, doséne:** dozena.

**ERDIKIÑ, erdikiñé:** erdikin

**ERRALDE, erralde:** erralde; bost kiloko pisua.

**GISELAN ANDI, giselan andi:** gizalan handi; "giselan txikerra ta giselan andie, bai euron metrok dekes"

**GISELAN TXIKER, giselan txikerra:** gizalan txikar; "giselan txikerra ta giselan andie, bai euron metrok dekes"

**GISELAN, giselana:** gizalan.

**ILLEDA, illedé:** ilada.

**IMIÑA, imiñe:** imina; "kaja bat ikitteen gurean, imiñe esaten dakona eta lau atarango anege", "guk iki gendun imiña bat, imiñe esaten geuntzen kajoi bet, a, lau areas, anega bat esateen apur bet gorabera"

**KANA 2 kana,** neurri mota bat

**KANTIDADE, kantidadé:** kantidade; "koxute egote san kantidade"

**KAPASIDADE, kapasidadé:** gaitasun.

**KARGA:1 kargá:** kargatu; "bueltakenan sabaldu, gero batu, pillotara batu, eskubereas, gero gurdi karga, etzera ekarri, eta ara aurreko alderdire eron gurdi, kargan imiñi tte lastegire altza" **2 kargé:** zama; "eta gero solta kargak solta an ta sotzardeas gora altza ostabere barrik sartzeko lastegire"

**KUARTILLU ERDI, kwartillu erdí:** kuartilu erdi.

**KUARTILLU, kwartillu:** kuartilu; "ia atara kuartillutxu bet, kuartillutxu edan ta fuma, fuma nik sarri itten doales ta, beste kuartillu bet"

**LAUREN, láurena:** lauren, laurden.

**LIBER LAUREN, liber láurena:** libra laurden.

**LIBERDI, liberdí:** liberdi

**LIBRA, líbre:** libra

**MEDISIÑO, medisiñó:** neurketa; "areas kajeas iste san gureko medisiño"

**MEGIDE, megíde:** neurri; "ganera ieten deu patatek gatza megiden daunen", "eta kajoik tapatxu bet ikieun, eta beste bat ba, tape aputxu bet altzata, an gari botaten megidea galdu sedeitten a, ta atzen euken parrilla bat, ta atzeko alderdire urteteun garik , bastante garbi urteteun e"

**ONTZA, ontzé:** ontza, neurria.

**PARTIDA, partidé:** pilo, asko; "kaballo partida bat ikusi du"

**PILLO, píllo:** pilo; "beste palu andi beten imintte san ira pillo bat, amarrata"

**SATI, satí:** zati; "ta nasta itten da mamitis, eta yatzikeran satik satik urteten dotze, eta gero areas ibillte basaus beste bateana basos nasta itten da, mamitis, ori txarra da", "arrotza ya, ba, gordiñik, iñ sulotxu bet, ta aputxu bet edan, ta gero talo satitxun ta andik sulotik, eta talo yan areas akaba arten, ori bai, orren memori badekot, aittentzako arrotze ta guretzako esne, indaban osterako"

**SELEMIÑ, selemiñé:** zelemín.

**TAMAÑU, tamáñu:** tamainu; "norberak koisteku-tzen tamañu", "eta gero asten danen tamañukoa, atara, eta

lurre preparata euki tte, atxurreas itten da kanaltxu, eta an kanalen imintten dires banan banan, noberak gure deun distantzie, eta atzera altza dan lurre botaten dake ganera gero tapateko, eta porru senbet eta luseao a, imiñiao ba, luseao urteten deu surik"

**-ERA**

**ANDIERA, andiére:** handiera

**SAKONERA, sakónere:** sakonera.

**SABALERA, sabálere:** zabalera.

**LODIERA, lodíere:** lodiera.

**LUSERA, lúsere:** luzeera.

**-ADA**

**AGOAKADA, agoakadé:** ahokada

**AUAKADA, auakadé:** ahoakada.

**BASUKEDA, basukedé:** basokada.

**ESKUTEDA, eskutedé:** eskutada

**KAMIOKADA, kamiokadé:** kamiokada.

**KOLLARAKADA, kollarakadé:** goilarakada.

**OTZARAKADA, otzarakadé:** otzarakada

**PLATERKADA, platerkadé:** platerkada.

**PURRINKEDA, purrinkedé:** apur bat.

**PURRUSTADA, purrustedé:** purrustada.

**SARANKADA, sarankadé:** zarankada.

**SESTOKADA, sestokadé:** zarankada.

**SURRUTADA, surrutadé:** zurrutada.

**SURRUTEDA, surrutedé:** zurrutada.

**TANGAKADA, tangakadé:** tankakada.

**TRIPEKADA, tripekadé:** tripakada.

**TXORROSTADA, txorrostadé:** txorrotada

**YARREKADA, yarrekadé:** pitxarkada

### 13.5. OGIBIDEAK

**AGUASILL, aguasillé:** alguazil; "aguasille ixen da urte askotan ori"

**ALBAÑEL, albañela:** igeltsero

**ALDEANU, aldeanú:** baserritar.

**ALKATE, alkaté:** alkate; "alkate imin deude"

**AÑA FRESKA, aña freska:** inude freska; "aña seka ta aña freska egoten siren bulerra dekenak umek asten a, eta ori usena eukitteuden", "añak eukitteesan etze askotan aberatzak atxiñe, aña seka, aña freska, isten siren"

**AÑA SEKA, aña seka:** inude siku; "aña seka ta aña freska egoten siren bulerra dekenak umek asten a, eta ori usena eukitteuden", "añak eukitteesan etze askotan aberatzak atxiñe, aña seka, aña freska, isten siren"

**AÑA, aña:** inude; "añak eukitteesan etze askotan aberatzak atxiñe, aña seka, aña freska, isten siren"

**ARGIÑ, argiñe:** hargin.

**AROTZ, arotzá:** arotz.

**ARTESI SORROTZALLE, ártesi sorrotzalle:** artazi zorrotzaille; "afiladore edo artesi sorro-tzalle dau or, atxiñe andi Butroitti pasaten siren txistu yoten"

**ASUR IMINTZALLE, asur imintzalle:** hezur ipintzaille; "beson golpe bat edo artu danean, artxen danean medikuana yon esittearren asur imintzalleana", "asur imintzalleana yotesan ordun,

laukisen on san bat, apurtu apurtu iñekok eseusen arreglako baya, estaipa, asko yote san areana olan golpe artukok"

**BETERINARIO, beterinário:** albaitero; "ixi itten dotzus a, beterinariok atek eta estosu atarateri pere"

**ESKEKO, eskekó:** eskeko, eskale; "oiñ eskeko les dabill orti"

**GANADU GIXON, ganadu gixona:** ganadu gizon.

**GUARDA, gwardé:** basozain; "ori guarda ixte san errotakotaringo ixte san errotako, oseake, karmenen amomana nik estaitt ser ixengo san aittitte edo, aittitte edo olan ixengo basan ba, ala asaoko, baya edoselan bere errotakoa, sera ixen san garde ixen san ta ilte topa eudean ba"

**IKESKIÑ, ikeskiñe:** ikazkin.

**KONSEJAL, konsejalá:** zinegotzi.

**KRIEDA, kriedé:** neskame; "gera denporan a, ba, yaboi eskas egon sanean a, krieda onitzen lekun ittesan"

**KRIEDU, kriedú:** morroi, mutil; "ori kriedu bota deude"

**LEGE GIXON, lege gixona:** lege gizon

**MAISTRA, máistre:** maistra.

**MAISTRO, máistro:** maisu; "maistrok gure deu emen lotu gittesan"

**MAIXU, máixu:** maisu.

**MATARIFE, matarife:** matarife; "eta esate san matarifek orikope ta galletatxuk yaten espaditu gatzik estaula artuten, ordun a, alegre alegre txarri ilte san"

**MAYORDOMU, mayordómu:** erremandadeko arduradun, kontuak egiten dituen.

**MEDIKU, médiku:** meriku, osagile. ; "medikune egonitzen", "lusero badeko kendu barik edo, ikeratu itte san bat, eta ordun abisateakon medikuri, ostantzen etzen intentate san"

**MORROI, morrói:** morroi, mutil.

**SOLDADU, soldadú:** soldadu;

**TRATANTE, tratánte:** tratulari.

**YOSKILLE, yoskillé:** joskin, jostun.

**YOSTUN, yostuné:** jostun.

#### **-LARI**

**BERTZOLARI, bertzolarí:** bertsolari; "bertzo-lari akaba esiñeko a ixen san"

**DENDARI, dendári:** dendari.

**ERREMENTARI, errementarí:** errementari; "errementari Yataben badau, an ingerun estau apenas besterik Yatabeko baño, Yatabera kamioiñ eroten deittue oiñ ganaduk"

**ERREMESALARI, erremesalarí:** bedarrak egiteko alogorean behar egiten zutenak; "esne ekarteoskun a, etzetakoak itteoskun domeka baten edo, ba erremese a, erremesalari esaten dako, etorte akusen"

**ERRENTARI, errentarí:** errentari

**ERROTARI, errotarí:** errotari; "aya errotari beti egote san kejas errotek yaten deule sera, apur bet eta ba, lau kilon usena bai baya ba, berari lau kilo estakosela lotxen"

**KANTARI, kantarí:** kantari

**MERKETARI, merketarí:** merkatari.

**PELOTARI, pelotarí:** pilotari.

**SAPATARI, sapatarí:** zapatarari.

**SERRARI, serrarí:** zerrari

**SOÑULARI, soñularí:** soñulari.

**TABERNARI, tabernarí:** tabernari.

**TXISTULARI, txistularí:** txistulari

**YOKOLARI, yokolarí:** jokalarari.

#### **-ERU**

**ABARKETERU, abarketeru:** abarketaegile.

**BARREÑERU, barreñeru:** zinezko ontziak konpontzen etxerik etxe ibiltzen zirenak; "barreñuk saltxen etorten sirenari esate aken barreñeru"

**JORNALERU, jornalerú:** alogereko.

**KAMIÑERU, kamiñerú:** kamineru.

**KARBONERU, karbonerú:** ikazkin.

**KARNISERU, karniserú:** harakin; "gero txiker-tuteun karniseruek"

**KARRETERU, karreterú:** itzain.

**KASERU, kaserú:** ehiztari.

**KINKILLERU, kinkillerú:** kinkailsaltzaile.

**LETXERU, letxerú:** esneketari; "letxeruk dau-seles etzerik etze dauseles, ba esne saldute bear gitxiaio"

**MARIÑERU, mariñerú:** marinela.

**PANADERU, panaderú:** oikin.

**PANDERETERU, pandereterú:** pandero jole.

**PESKATERU, peskaterú:** arrain saltzaile.

**SESTERU, sesterú:** otzara egile, saskiegile.

**TABERNERU, tabernerú:** tabernari.

#### **-ERA**

**BENDEJERA, bendejeré:** bendeja saltzaile.

**ERREGATERA, erregateré:** errekaritari

**ERREGETERA, erregeteré:** errekaritari.

**KARTERA, karteré:** postaria

**PESKADORA, peskadoré:** arrantzale

#### **-ORE**

**AFILADORE, afiladoré:** zorrotzaile; "afiladore edo artesi sorrotzalle dau or, atxiñe andi Butroitti pasaten siren txistu yoten"

**ERRENTADORE, errentadoré:** errentan dagoe-na; "Butroiñ a, erretandore pere ba, Margaltzati ekarteudenugarri esta?", "aor bean bixi giñen lenau errentadore, aortxe! orrau daon etze orretan"

**KANTORE, kantoré:** kantari.

**KORREDORE, korredoré:** korrikalari.

**PASTORE, pastoré:** artzain; "ori Ameriketean dau pastore", "bai gerra osten pastore yon da orti gure alderditi asko ori a, kurtzioko usaba pere ameriketako susidio kobraten deu pastore an intte, eta orren anaje bi edo iru te, koñetu te, gasteri itzela, ointxe il da bat, asentzion anaje a, estat akordaten usena oiñ"

**TASADORE, tasadoré:** erremandadeko tasa-tzaile.

## **14. ERLIJIOA**

Erlijioari dagokion hiztegiagaz batera beste siniskera batzuk ere emango ditugu.



**ABADE, abadé:** abade, apaiz; "ori errin dau abade", "etzerik etze etorten siren abadek"

**AGUR MARI, agur mari:** "aitte gure bat eta agur mari bet, isten siren erresuk"

**AITTE GURE, aitte guré:** aita gure; "aitte gure bat eta agur mari bet, isten siren erresuk"

**AITTE SANTU, aitte sántu:** aita santu.

**AITTEAREN, áittearena:** aitearen.

**ALTARA, altáre:** altara; "gure jaune etzera gaixo bateri eroteko bere, ba altare prepara ber ixete san atxiñe"

**AMABIRJÍNA, amabírjiñe:** amabirjina

**ANDRAMARI, andramari:** andramari.

**ANGERU YAGOLE, angeru yagole:** aingeru jagole.

**ANGERU, angerú:** aingeru.

**ARIMA, arimé:** arima.

**BATEO, bateo, bateo, bataio.**

**BAUTISO, bautíso:** bateo, bataio; "eta abade etorteko leku barik ba, etzen bautiso itteko ba, emonta egon a, permiso egon san"

**BEDERATZI URRUN, bederatzi urrun:** bederatzi urrun.

**BELUKO MESA, beluko mesé:** beluko meza.

**BEREINKESIÑO, bereinkesiño:** bedeinkazio; "eta gero itte san, ba garin bereinkesiño"

**BIRJÍNA, birjiñe:** birjina.

**BODA, bóde:** ezkontza

**BULA, búle:** bula; "bulak a, erosi ber ixeten siren, limosna bat itteko, elixako limosne itteko bule emote san limosnen ordes, baya ya nonbrata ikitteuden presio, eta gero orrek artueskeron ba bijili pere eskastu itten siren, bulak artueskeron"

**DEMONIÑO, demoniño:** demonio, txerren.

**DIABRU, djábru:** diabru, demonio, txerren.

**NOTE, dóte:** dote.

**ELIS ARTZAITTE, elis artzaitte:** eleiz hartze; "señe yayo ta leleko salide amana señas, elis artzaitte esate akon orreri, ori itte san illebetgarrenen edo, abadek itteusen erresu betzuk, eta ori ixete san"

**ELISKIXUN, elískixune:** eleizkizun.

**ELIXAKO MANTEL, elixa mantela:** zama

**ELIXAKO SAMAU, elixako samau:** zama; berau eta aurrekoa elizako sepulturetan kandelak jartzekoak baino ez dira.

**ELIXAKO TRAPU, elixako trapu:** zama

**ERLIJÍÑO, erlijiño:** erlijio.

**ERRESPETU, errespétu:** begirune.

**ERRESPONTZU, errespóntzu:** errespontsu..

**ERRESU, errésu:** otoitz; "aitte gure bat eta agur mari bet, isten siren erresuk", "señe yayo ta leleko salide amana señas, eleis artzaitte esate akon orreri, ori itte san illebetgarrenen edo, abadek itteusen erresu betzuk, eta ori ixete san."

**ERROGATIBA, errogatibe:** errogatiba.

**ERROSARIO, errosario:** errosario

**ERRU, errú:** erru; "sure errukaittik allega gara belu", "ak esteu euki errurik"

**ESKONTZA, eskóntze:** ezkontza; "eskontzako yantzie tximurtu in da"

**FEDE, fedé:** fede.

**FRAIDE, fraidé:** fraide; "elixen barrun lantzen bat enterrate san gixon andi bet edo, estaipa seaittik, edo abade edo fraide baya"

**FRAILE, frailé:** fraide.

**GAYERA, gayere:** geiera, deion.

**GURE JAUNE, gure jauné:** gure jauna; "gure jaune etzera gaixo bateri eroteko bere, ba altare prepara ber ixete san atxiñe"

**INFERNU, infernú:** infernu; "an infernuko labe sabalik egon balitz bere ara barrure erongo eule berak bisiklete"

**IRU URRUNEKO MESA, iru urruneko mese:** hiruurruneko meza; "iru urruneko mese, iru mesa segidun, oin ba paño esteude itten, baya atxiñe iru itten siren, iru urruneko mesak"

**JAINKO, jainkó:** jangoiko.

**JANGOIKO, jangoikó:** jangoiko; "orrek esteu siñestuten jangoikoas"

**JAUN, jauné:** jaun

**JESUSEN BIOTZ, jesusen biotza:** Jesusen bihotz; "jesusen biotza, bios sagraduri, irudi a, elixatan dausen irudik, biotza agirin daule, bios sagradu, orreri esaten dako"

**JURAMENTU, juraméntu:** madarikazio.

**KOMUNIÑO, komuniño:** komunio.

**KURTZE, kurtzé:** gurutze; "baya edoselan bere errotakoa, sera ixen san garde ixen san ta ilte topa eudean ba, or kurtze ta imintte egon san lekun eta asarre ixen siren antza"

**LIMOSNA, limósne:** limosna; "bulek a, erosi ber ixeten siren, limosna bat itteko, elixako limosne itteko bule emote san limosnen ordes, baya ya nonbrata ikitteuden presio, eta gero orrek artueskeron ba bijili pere eskastu itten siren, bulak artueskeron"

**MALDISIÑO, maldisiño:** madarikazio.

**MALESI, malési:** malezia

